



ARGIA

Arrazakeria, egiturazko zapalkuntza

GEORGE FLOYD (1973-2020)

22-27. orriak

2.691 | 2020 / 06 / 21 | 3,90 €



**"Aroztegia
proiektuaren helburua
inmobiliaria da"**

12 | MATTARI PLAZA



**"Diputazioak eta
enpresa pribatuak,
eskutik doazen lagunak"**

28 | ZAHAR EGOITZAK



**Bigarren itzuliak
aldaketa ekar lezake
leku ugartan**

32 | E28: HERRIKO BOZAK

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN # 253
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



ESKLABOTZA
NOLA ENGAINATU GAITUEN KAPITALISMOAK

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
STAR TRIBUNE

Iritziak

- 17 | BALEREN BAKAIKOA
- 18 | MAIALEN BERSATEGI
- 19 | ANUNTXI ARANA
- 19 | UXUE APAOLAZA
- 20 | FERMIN ERBITI

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 54 | BERANDUEGI



DANI BLANCO

28 | ZAHARREN EGOITZAK

Onintza Iruretak senideak eta langileak elkarriketatu ditu eta hauek adierazi dute haien zentzuzko ez dela egoera bere onera itzuli. Arduradunak seinatu dituzte: Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiak.

Elkarriketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

COVID-19 eta merkatu librearen estatuak auziperatzeko bidea badute multinazionalak

Jenofa Berhokoirigoin

12 | MATTARI PLAZA

“Nafarroan ez dago aroztegiak besteko inpaktu ekologikoa duenik”

Miel A. Elustondo

22 | NAZIOARTEA

G. Floyd sistemaren pisupean itota

Maria Ortega Zubiate

32 | POLITIKA | HERRI BOZEN BIGARREN ITZULIA

Auzapezgoak irabazteko aukerak dituzte abertzaleak

Jenofa Berhokoirigoin

35 | EUSKARA

Eskolarik gabe, haurrak euskaraz aritzeko mintzakide bila

Malen Aldalur

38 | GIZARTEA

Muga eguneroko bizitzari

Mikel Garcia

44 | KULTURA

Agustin Arrieta, itzulerako bidaiaren xendan

Beñat Sarasola

52 | ARGIA KONTRA | AIZPEA GOENAGA

“Sortzen dugunok ezin dugu jubilatuta eta zorionekoak gu”

Aitziber Zapirain

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitu Eizaguirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Maria Ortega, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olasolo, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Sorraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta Interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA





“Gure heroiak”

George Floyden hilketa arrazistak nazioartean eragindako protesta uholdeak kolonialismoaren ikurrak jarri ditu jo-puntuan. Inperialismo edo esklabismoarekin lotutako gizon zuriak, historia eurozentristak deskubritzaile, nabigatzaile, hiri-sortzaile, abenturazale, negozio-gizon edota heroitzat saldutakoak. Hemen eta orain, zenbat Zurbano, Elkano, Legazpi, Saenz Elola, Loiola, Blas de Lezo, Txurruka, Zulueta, Ariztegi, Uriarte, Goikoa, Agirre, Urdaneta, Okendo... ditugu kale izenetan, eskola liburuetan edo plazetako estatuetan? Mendebaldeko gizon zurien supremazismoaren loriarako.

Irudian: AEBetako Minnesotan, herritarrek dantzan, soka bi lepoan lotuta lurrera botatako Kristobal Kolonen estatuaren inguruan.

MOTZEAN

Zaldunbordako outlet erraldoia ahalbidetzen zuen Hondarribiko Udalaren plan orokorra bere osotasunean indargabetu du EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak.

Kontratu "telegidatuak" eman dizkio EAJko kargu baten enpresei Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzak. Montai taldeak bederatzi kontratu irabazi ditu, 180.000 euro baino gehiago guztira.

Bigarren baserri bat bota dute Abadiñon, AHT egiteko. Muntzaraz auzoan aurkitzen zen Goxentziagirre baserrian ez zen inor bizi jada.

EAEen aurten 69.000 lanpostu galtzea aurreikusten du Eusko Jaurlaritzak. 2020an EAEko Barne Produktu Gordina %8,7 jaitsiko dela uste du.

Jamattitt Bidart "Kuxkurrio" hil da, 93 urterekin. Arrola dantza taldearen eta euskal kulturaren sustatzailea izan da baigorriarra.

Patxi Ruiz euskal presoak gose greba utzi du 31. egunean.

Telelana arautuko du Espainiako Gobernuak eta telelanak eragindako gastuak (argindarra, konexioa...) enpresek ordaintzea eskatu dute sindikatuek.



Iruña-Veleiako grafitoak faltsutzat jo ditu epaileak

ARGIA

Hamalai urteren ostean, bederatzi urteko instrukzio fasea eta hamabi saioko epaiketa tarteko, Iruña-Veleia auziak badu epaia: epailearen arabera, grafitoak faltsuak dira. Faltsutzearen erantzule nagusitzat aztarnategiko arduraduna zen Eliseo Gil jo du epaileak; bi urte, hiru hilabete eta 23 eguneko zigorra ezarri dio iruzur egiteagatik, dokumentuak faltsutzeagatik eta ondarearen aurkako delituen-gatik. Rubén Cerdani urte bete gutxiagoko zigorra ezarri dio; urte bete, hiru hilabete eta 23 egun, txostena faltsutzeagatik.

Guztira hiru dira zigortutako auzipetuak. Izan ere, epaiketaren lehen egunean Oskar Escribano geologoa ere zigortu zuen epaileak. Arrazoiak: idatziak eta irudiak faltsutzea. Auzipetuak onartu zuen pieza batean "Veleia" idatzi izana, lankideei txantxa egin asmoz, bere arabera. Escribanok urtebeteko kartzela zigorra eta 2.000 euroko isuna hitzartu zituen akusazioarekin.

Epaiketak luze jo duela iritzirik, epaileak aringarriak ezarri dizkie hiruei, eta ondorioz ez dute espetxera joan beharko. Epaia ez da irmoa, beraz aldeek helegiteak aurkeztu ahal izango dituzte.

"DATAZIOAK EGIN ARTEAN, JUSTIZIARIK EZ"

Lurmen enpresak dagoeneko agertu du helegitea jartzeko asmoa. SOS Iruña-Veleia, Euskararen jatorria eta Martin Ttipia taldeekin batera, Iruña-Veleia Argitu egitasmoaren parte da Lurmen. Ohar bidez adierazi dutenez, epaiaren aurka daude eta iruditzen zaie epaiketan "eskubide guztiak" urratu zaizkiela. Diotezen, grafitoen lagin bat arkeometrian espezializatutako Europako laborategiek azter dezaten ez du ahalbidetu epaileak. Datazioak egin artean justiziarik ez dela egonen adierazi dute.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Tabuak



ARITZ GALARRAGA

Imajinatzan duzue gizenei, pobreei, hilurren dauden gaixoei buruzko txantxak egitea? Ez guasap taldeetan, testosteronaz enpo, baizik eta milaka ikusle dituen telebista saio batean? Eta saio horrek gainera funtzionatzea, alegia, barre eginaraztea? Kataluniako telebista publikoan gertatu da, azken asteotan, David Verdaguer aktoreak aurkeztutako *Tabús* programan. Mekanika, sinplea: tabu den zera hori duten gonbidatuekin egun batzuk pasa, eta umorezko monologo bat egin gero. Gogoangarriak ez gutxi, adibidez LGTBIQ+ komunitatearen gainekoa (wifi pasahitzik behar baduzue, horra bat egokia). Gurasotasunik gabe, koitadurik ez, superheroirik ez, batzuk eta besteak parez pare. Eta puntu honetan ez dut euskal telebista publikorik aipatuko; nekatu nintzen, 651 zutabe idatzi nituen telebista nola ulertzen dudana argitzen saiatzeko.

Aldiz aipatu nahiko nuke tabua, jatorri sozial eta morala duen debekua edo gaitzespena. Giza talde bakoitzak, garai bakoitzean, ditu bereak. Adibidez intzestua, edo kanibalismoa (MZk, bere ikasle konfinatuei: "Bizirik irauteko ezinbesteko baldintza balitzaizu adiskide baten haragia jatea, egingo zenuke? Nondik hasiko zinateke: izterretik, belarritik?"). Peter Handke urrunago doa, hala dio berari buruzko dokumental batean: "Tabu da idaztea, tabu bat haustea, ez da naturala; badago zerbait idaztea zilegi ez dela esaten dizuna". Pertsonalki, uste dut gauza guztiei buruz hitz egin, idatzi, barre egin behar dela, are osasungarria dela egitea. Inportanteena ez baita zeri buruz, ezpada nola. Eta inori barre egitea baino, inorekin. Mugarik gabe, behetik gora ere bai, noski, baina horizontalean. Berdintzen gaitu umore horrek gure desberdintasunean, humanizatzen, besteari, zure irudikoari, azken batean zuri, zure buruari egiten diozun umoreak. Eta ez bereziki tabuaren kontra; agian taburik ez balego bezala. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

"ZERGATIK KRIMINALIZATZEN DU DONOSTIAKO UDALAK BIZIKLETAREN ERABILERA?"

KALAPIE, HIRIKO TXIRRINDULARIEN ELKARTEA

Dagokion lekuan aparkatuta ez dauden bizikletak eramaten eta isunak jartzen ari dira Donostiako udaltzainak. Bizikletentzat nahikoa aparkaleku ez dagoela eta bizikleta eraman diotenari sostengu legala eskainiko diola iragarri du Kalapie. "Udalak Ordenantza zorrozki betearazi nahi badu, zergatik ez ditu betearazten motordun ibilgailuen gaineko artikulatuak? Ez dugu uste desohorea denik hiriko kaleak bizikletaz beteta egotea; aitzitik, horrek erakusten du Donostia hiri modernoa eta ez hain kutsatua dela". 2020/06/04



Lau hilabete Zaldibarren lurperatuta



JUAN MARI ARREGI

Lau hilabete dira otsailaren 6an Zaldibarko zaborteia lehertu eta Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran lurperatu zituztenetik. Bere senide eta lagunak, urduri eta haserre, herri mobilizazioak egiten jarraitzen dute Verter Recycling enpresaren eta zaborteiak zaindu eta kontrolatzeaz arduratzen den euskal administrazioaren aurka.

Orain arte, Eusko Jaurlaritzak eskuak garbitu ditu, hondamendiaren erantzukizuna jarritz zaborteia ustiatzen duen enpresaren gain. Hala ere, Ertzaintzaren txostena filtratu berri da, euskal administrazioa asko kezkatu beharko lukeena. Logikoa denez, zaborteia ustiatzen duen enpresa da hondamendiaren lehen erantzulea. 2015eko zigor-kodearen erreformak, ordea, erantzukizun penaletan sartzen ditu, kasu horietan, hondakinak uzten dituzten enpresak eta administrazioa, zaintzeaz eta kontrolatzeaz arduratzen den erakundea den aldetik.

Zaborteiak ikuskatzea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saialari dagokio, garraioaren kontrola Segurtasun Sailari eta jatorriko materialak behatzea Industriari. Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzako hiru sailek hartu zuten parte hondamendi hartan, eta horien erantzukizun politikoak ez ezik, erantzukizun penalak ere ebatziko dira. Eusko Jaurlaritzak ezin ditu eskuak garbitu eta enpresari bakarrik begiratu, bere buruari ere eskatu beharko dizkio erantzukizunak. Eta ez dezagun ahaztu hondamendi hartako gauzarik larriena bi langileren heriotza izan zela.

Hain zuzen ere, Iñigo Urkullu lehen-dakariak kapitalaren zerbitzura dagoen politikari baten profila erakutsi zuen egun hartan. Etengabe *Teleberri*etan ageri zaigun arren, egun hartan ez genuen telebista publikoan ikusi. ●



Arrazakeriaren aurkako borroka ez da HBOn egingo

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

HBO streaming plataformak AEBetako bere katalogotik erretiratu zuen joan den astean 1939ko *Gone With the Wind* pelikula, George Floyd-en hilketaren ondoren herrialdean indar handia hartu duten aldarri antiarrazisten atzeko hotsek bultzatuta: pelikulak esklabotza goraipatzen duela salatu zuen John Ridleyk *Los Angeles Times* egunkariko zutabe batean eta artikulua piztutako garrak bultzatu zuen erabakia. Gero jakin denez, HBOk filma berriz ikusleen eskura jarritzea erabaki du, haren "testuinguru historikoa" azaltzen duen ohar batekin.

Plataforma pribatu baten eskaintzaz ari garenez, haren bezeroei bakarrik eragingo lieke filma deskatalogatzeak –ezin da konparatu, adibidez, artxibo publiko batek antzeko zerbait egingo balu sortuko litzatekeen egoerarekin–, baina HBOren ikusle kopurua kontuan izanda, zentsurari buruzko debatea piztu da, bai AEBetan, baita handik kanpo ere.

Identitate-politikek azken urteetan hartu duten indarraren erakusgarri izan daiteke kasua. Gizarteak geroz eta ardura handiagoa dauka zapalduetako kolektibo batzuen errepresentazio publikoarekin –ezen ez kolektibo horietako pertsonekin– eta pixkanaka horren eragina nabaritzen hasi da: duela ez asko normalizat jotzen ziren komentario, txiste edo jarrerak baztertzeko joera nagusitzen ari da.

Baina irakurketa hori egitera mugatzea, oso azalean geratzea litzateke eta, nolabait, gizartearen aurrerakuntza motel baina etengabe sinestea –aurpegi berriko faxistak zenbat ugaritu diren ikusita, lerro hauek idazten dituenari asko kostatzen zaion zerbait–. Eta *Gone With the Wind*-ekin gertatutakoa ezintasun politiko baten erakusgarria balitz? Gizartea eraldatu nahi dutenek, lortzen ez dutenean, sarritan bilatzen dute kontsolazio-saria gizartea errepresentatzen duten fikziozko lanetan, hauen baloreak auzitan jarritz gizartearen baloreak kolokan jarriko balira bezala. Horrek, gainera, maiz samar ekartzen du filmak, nobelak edo kanta kualitate moral batzuen transmisore soil bezala irakurtzea, edozein ekoizpen kultural kritikoki aztertzeke beste aldagai asko ere kontuan hartu beharko liratekeen arren.

Bestalde, duela 80 urte baino gehiago egindako pelikula bati buruz ari gara, bere alde on eta txar guztiekin: *Gone With the Wind*-ek estereotipo arrazistak imajinario kolektiboan txertatzen lagundu bazuen ere, aspaldi utzi zion eragin hori edukitzeari publiko masibo batentzat. Film horren aurka eginez arrazakeria borrokatzen duela pentsatzen duenak, hobe luke Gil Scott-Heronek zioena entzun: "Iraultza ez du telebistak emango". Ezta streaming plataforma multinazional batek ere. ●



**“Ikasi dut
osasunean
inbertitzea
etorkizunean
inbertitzea dela”.**

**Miguel Ángel
Von Wichmann**
OSAKIDETZA

Osasuna.

Ikasi dugu osasun publikoa funtsezkoa dela. Ikerketa bultzatu behar dugula. Gizarte gisa ezin dugula ahaztu ikasi eta lortu duguna.

#AurreraEgitekoGogoratu

**Asko ikasi dugu.
Ez dezagun ahaztu.**

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

COVID-19 ETA MERKATU LIBREA: ESTATUAK AUZIPERATZEKO BIDEA BADUTE MULTINAZIONALEK

Koronabirusaren izurriteari aurre egiteko hartutako babes eta osasun neurriak izan daitezke multinazionalentzako diru iturri. Nola? Merkatuaren liberalizazioa dakarten akordioek bideratu auzitegi pribatuetan estatuen kontrako salaketa jarritz. Bide hau ikertzen dabilta abokatu kabineteak, Corporate Europe Observatory eta Transnational Institute izeneko Gobernu Kanpoko Erakundeek egindako inkestak argira ekarri duenez.

JENOFA BERHOKOIRIGGIN

Baliteke koronabirusari aurre egiteko osasun eta babes neurriengatik auziperaturik izatea estatuak. Ez ordea Justizia publikoaren baitan, baizik eta merkataritzaren liberalizazioa dakarten hitzarmenek ahalbideturiko auzitegi pribatuen baitan. Hain zuzen, Inbertsiorako Sistema Judiziala deitu mekanismoari esker, konpainia batek estatu baten kontrako salaketa jar dezake gaur egun, onartutako legediak kalte egin diola uste badu –irabaziak gutxitzea izan daiteke kalteetako bat–.

Hainbat hilabetez inkesta buruturik, ondokoaren berri eman zuten Corporate Europe Observatory (CEO) eta Transnational Institute (TNI) Gobernu Kanpoko Erakundeek maiatzaren 18an: abokatu kabinete handi batzuk dabilta koronabirusaren izurriteari aurre egiteko neurriak aztertzen, ondorengo multinazionalen estatu horien aurkako salaketak jartzeko gisan. Horren berri ematen du lareleveetlapeste.fr webguneak, “COVID-19: abokatu kabinete batzuk multinazionalak laguntzen dabilta, estatuak justiziaren aurrera jaurtikiz haien galtzeak estaltzeko asmoz” (*COVID-19 : des cabinets d’avocat préparent les multinationales à attaquer les Etats en justice pour compenser leurs pertes*) artikuluan. Ura, etxebizitza zein osasunaren esparru premiatsuak ikeritzen dabilta, inolako konplexurik gabe. Adibideen artean, Bolivia eta El Salvadorren harturiko neurriak dituzte: ura-

ren fakturak ezeztatze erabakia hartu zuten, guztien higiea segurtatzeko eta eskuak garbitzeko orduan muga ekonomikorik ez izateko gisan. Erabakiak diru sartzeak gutxiturik, estatu horiek auziperatzeko aukera baluke uraren kudeaketan dabilen enpresak. Gisa berean, ospitale pribatu zein hotelak koronabirusaren aurkako arta publikora bideratu izana ere dute auzitegira eramateko arrazoi gisa ikusten.

Mundu liberalean, kontrolik eta lege-rik ez den gisara, bihotzik ere ez da eta izurrite ala gosete, ezerk ez die eztatzen diru-gosea. “Alde bakoitzeko bost milio dolarreko gastua izanki –batzuentzako 30 milioi dolar baino gehiago delarik–, auziperatzeen *boom* horri esker sekulako etekinak egingo lituzkete abokatu kabineteek” CEO eta TNI egituren arabera, bide beretik krisiaz gogorki hunkiak diren estatuen defizita oraindik gehiago sakonduz.

Haien logika muturreraino eramateko ausardia osoz dabilta abokatu kabineteak. Adibidez, herritarren manifestazio eta protestak aurreikusi ez izanagatik, estatuei salaketa ezartzeko aukera ere dute mahai gainean. “Istilu sozialek enpresetan lapurreta ondorioztatzen badituzte, kanpoko inbertitzaileek ondorioztatu dezakete estatuak ez duela babes eta segurtasun osoaren betebeharrak bete”, Voltera Fietta Londresko kabineteak segi. Gisa horretako auzibideak badira iraganean, tartean Arabiar Uda-

berriaren baitan gertatu Ampal-American gasbidearen kontrako ekintzaren harira 2017an Egipto zigortu izana. Ezerk ez dituenetz gelditzen, inkesta burutu duten bi GKEk argi dute: “Beranduegi izan baino lehen”, merkatu librerak dakarten hitzarmenekin bukatu behar da. Alta, koronabirusaren testuinguruak elikadura, industria baita zerbitzuen burujabetzaren garrantzia argi utzi badu ere, badirudi EBk logika zaharrarekin begiratzen diola geroari.

KONFINAMENDUAN ERE IZENPETUZ

“41 itun izenpetu ditugu 75 herriekin eta oraindik gehiago izenpetu behar genituzke datorren urteetan”, Phil Hogan Merkataritzarako Europako komisarioaren hitzak dira, konfinamendu garai bete-betean plazaratutakoak. Funtsean, herritarrak konfinaturik ginela, merkatu librerako hitzarmenak izenpetzen segitu zuen Europar Batasunak (EB). Tartean, Mexikorekin pasatakoa –2016az geroztik izenpetu nahian zebiltzana eta aurtengo apirilaren 28an izenpeturikoa–. Martxoaren 30ean aldiz, Vietnamekin zuen logika bera adostu, aduana zergen %99ak desagerrarazteaz gain, Vietnameko zerbitzu eta merkatu publikoak Europar Batasuneko enpresei irekitzen dizkien hitzarmena izenpetuz. Nekazari ttipien alde borrokan dabilen Via Campesina sindikatuak beste behin errepikatu behar izan zuen begibistakoa zaiona: “Liberalizazio horrekin segitzea mun-



ALDAKETA BEHARREZKOA DA:
MERKATUAREN LIBERALIZAZIOA
DAKARTEN AKORDIOEN LOGIKAK
EZ DU KLIMA LARRIALDIARI
AURRE EGITEKO HELBURUAREKIN
ERRIMATZEN. ALTA, HITZARMEN
HAUEK IZENPETZEN SEGITZEN DU
EUROPAKO BATASUNAK, BAITA
KONFINAMENDU GARAIAK ERE.

duko nekazariei laido egitea da, ezin da gehiago eskandalu horrekin jarraitu”.

Koronabirusaren testuinguruaz gain, klima larrialdiaren errealitatea larriagotu besterik ez dute egiten akordio horiek. Ez doaz iazko abenduan Europako Batzordeko presidente Ursula von der Leyenek Europako Parlamentuari aurkezturiko *Green Deal* –Itun Berdea– hitzarmenaren bidetik. 2050erako karbono neutralitatea helburu du itunak –ozono geruzan eragiten duten gasen isurketa gasen desagertzearen heinekoa izatea–. Polonia izan ezik, EBko estatu guztiek onartu dute helburua. Alta, nahiko hauskorra da adostasuna, batez ere gaurko egunean, suspertze ekonomikoari lehentasuna emateko ordua dela erranik, Itun Berdea bigarren mailara pasa nahian dabiltzalako hainbat estatu. Api-

rilaren 27 eta 28an izandako Petersbergo Elkarrietzeta hurbiletik segitu zuten ekologistek, neurtzeko zer heinetaaraino zuten klima larrialdia kontutan hartzen. Europako Batzordeko presidentek ondokoa berretsi zuen: “Itun Berdea iparrorratz gisa erabiliz, gure ekonomiak beste modu batera berreraikitzeke eta azkartzeko aukera bihurtu dezakegu pandemiaren kolpea”. Orain arte ez bezala, postura horretan kokatu zen Angela Merkel Alemaniako kantzillerra ere.

GREEN DEAL ALA GREENWASHING?

Hitzek haratago ekintzak beharko dira, *Green deal*-a ez dadin *greenwashing* berri bat izan –orain artekoa berdez pintatzeko marketin joera–. 2008ko krisiarekin gertatutakoak ez du errepikatu behar hamabi urteren buruan. Hain zuzen, or-

duko neurri ekonomikoek CO2 isurketen emendatzearekin errimatu zuten. “Alimaleko errorea litzateke krisia epe laburreko logikarekin kudeatzea; horrela izan zen 2008an eta klimari buruzko egintzen obratzearen ahultzea ondorioztatu zuen” Klimarentzako Europako Fundazioaren presidentearen hitzetan. *Lobby*-ak ez dira konfinaturik egon: merkatu libre bideratzeko zein ekonomia salbatzeko diru-laguntzak banatzeko orduan, presioa sekulakoa izaten ari da. Hegazkin konpainiek ia baldintzarik gabe estatuen partetik jaso miliarrak dira horren adibide. Ingurumen neurriak eztatzeke presioa ere bideratzen dabil-tza. Hori horrela, hitzetik ekintzetara pasa nahi badu EBk, Bruselan zein Estrasburgon diren *lobby*-en presiopean ez du amore eman beharko. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 - 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w

Mattari Plaza

LEKAROZ EDERREAN, AROZTEGIA INFERNU



NAFARROAN EZ DAGO AROZTEGIAK BESTEKO INPAKTU EKOLOGIKOA DUENIK



Joxean Artze 70eko hamarkadaren hasieran Lekarozen, edo egonaldi bat poesia egina: «...leioa ireki nuen / eta emeki emeki / Baztango lurrean / Baztan baitan / Baztan izan nintzen».

Ingurumena hondatuko lukeen proiekturik gabeko Lekaroz orduan, arrisku gorrian Baztan gaur egun, Aroztegia proiektua dela kausa: 226 etxebizitzako urbanizazioa, 135 gelako hotela, jatetxea eta 46 hektareako golf zelaia... natura beteko Baztan baitan.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Denbora da Aroztegia jauregia gatazka iturri denetik...

Aspaldi da, bai. Orain baino lehen, Eusko Alderdi Jeltzaleak proiektu bat izan zuen 90eko hamarkadan. Euskal artisten museoa eta piriniar arrazako behien esperientziaz zentroa egiteko asmoa izan zuten. Aroztegian, betiere. Jauregiko maizterrekin solastatu ziren, etxe bana egingo zieten erran zieten, langile hartuko zituztela, soldatapean, baina maizterrek ezetz, orduko gisan nahi zutela jarraitu lanean. Eta ezetz eta ezetz, eta EAJk atzera egin behar izan zuen. Orduko denboran ez nintzen jabetu, baina, gero, batean Guggenheim,

bertzean Txillida-Leku eta horrelako istorioak ikusirik, hobeki konprenitzen ahal da haien helburua.

Zein ziren maizter?

Lekarozen berean bizi da bat, Klemente Garde. Aroztegian bizi izan ziren garde-tar horiek, nagusiek saldu zuten arte! Bertzenaz, han jarraituko zuten, nekaritzan eta abeltzaintzan. Enrike Gracia de Acedo zen Aroztegiako nagusia garai hartan. Donostian bizi zen. Gure aitak Aroztegiako administrari lanak egin zituen, eta hiltzean, ni gazte nintzelarik, neuk hartu nuen ardura. Harreman gutxi izaten nuen Enrikerekin

[Gracia de Acedo], errentak kobratzen zirenean transferentzia egiten nion, berak dirua jaso zuela jakinarazten zidan eta gisakoak.

Hark ez zuen Aroztegia saldu.

Ez, ez zuen beharrik. Ondoren sartu zirenek saldu zuten, Enrikeren lehengusina batek, erranen nuke. Espinosa de los Monteros dute deitura. Donostian bizi ziren horiek ere. Haiek saldu, eta ama-eme batzuek erosi: Maria Dolores Alkorta eta Jose Mari Zelaieta ziren. Orduantxe piztu zen gatazka. Nagusi berriek Aroztegia guztia inguratu zuten, hetsi zituzten bide batzuk... Eta Leka-



MEMORIAL LARRALDE
1941-1998

Martin Mari Plaza Lekunberri, 'Mattari'

LEKAROZ, 1958



Irakasle jardun zuen hamabi urtez Baztan Ikastolan, eta, ondoren Psikologia ikasketak eginik, orientatzaile Lekarozko Institutuan. Aldez edo moldez Aroztegiari lotua darabizia, aitaren egitekoari jarraituz, errenta kobratzen garai batean, eta are gehiago orain, Lekarozko zinpeko alkate denez gero. Lau garren urtea du zerbitzuan, Aroztegia jauregiko korapilo bihurria auzitegiek inoiz askatuko duten zain. Auzitegiak auzitegi, epailearen erabakiek nekez gozatuko dute zenbait herritarren artean hoztua den giroa. Ezta, higiezin proiektu erraldoia gatzatzen bada, ingurumen kalte izugarria ere.

rozen, eta Baztanen, bideen afera beti da gai korapilatsua, bide publikoak baitira. Oroitzen naiz batzarrak egin zirela, nahiko istilutsuak batzuk. Gero, ama-seme horiek saldu zieten Aroztegia oraingo jabeai: Mercantil Aroztegia zen lehen, eta Palacio de Aroztegia da orain; lehenago, Baltea Desarrollos Inmobiliarios izana da. Izenak ere aldatu baitituzte behin baino gehiagotan! Gaur egun elkarte horretako partaideak zein diren jakiteko ere, beharko zenuke ikerketa taldea osatu, egiaz!

Ez da lan erraza, beraz.

Ez. Baina ikerketa eginez gero, ikusi ahalko genuke horko izenak zein erakundetan ibili diren sartuak, higiezin aferetan beti. Batean elkarte osatu, bertzean desegin, izenak aldatu... oso gauza bitxia. Caixa Galiciak %51ko parte zuen Aroztegia kudeatzen zuen enpresan! Gaur egun ez dakit nola dagoen parte hartze hori. Oraingo kudeatzaile Salvador Urbistondo Arotzare-naren izena aztertu, adibidez, eta ageri da ari dela higiezin enpresa askotan.

Enrike Gracia de Acedoren heriotzaz gero, Aroztegia saldu zutenean piztu zela gatazka esan diguzu...

1995 inguruan, erranen nuke, arestian erran dudana Maria Dolores Alkorta-eta, horko nagusi egin zirenean eta jauregia eta lurak inguratu eta bideak ere hetsi zituztenean. Bide publikoak hetsi zituztelako, batik bat. Elizondoko udalari esku hartzeko eskatu zitzaion, baina ez zuen askorik egin. Bide publikoak hestea ez zitzaion jende askori gustatu, eta hesi batzuk hautsi ziren. Eta salaketak etorri ziren eta hau eta hura. Eta gatazka.

Hurrena, oraingo proiektua etorri zen: 226 etxebizitzako urbanizazioa, nazioarte mailako 135 gelako hotela, goi mailako sukaldaritza jatetxea eta 46 hektarea hartuko lituzkeen bederatzi zuloako golf zelaia.

Hori guztia! Proiektua Nafarroako Gobernuan aurkeztu zutelarik, Miren Meoki zen Lekarozko alkate. Orain sei urte-edo izanen genuen oraingo asmoen berri. Aroztegiaren kudeatzailerlek saio informatiboak egin zituzten herrian, baina Lekarozen jendeak ez zuen parte hartu. Lurak birkalifikatu zituzten eta 226 etxebizitza, golf zelaia, hotela eta hau eta hura egiteko proiektua zen. Etxebizitzak zirela kausa sortu zen gatazka. Arazoa ez da egon ez hotelean, ez golf zelaian, etxebizitzetan baizik, zeren hor ikusi da pelotazo urbanistikoa dela proiektua. Hala ere, Aroztegiakoa ez da pelotazo bakarra, espainiar estatuan leku askotan egin dute hori. Beharrik, leku batzuetan ongi arautu du afera Espainiako Gobernuak, baina kaltea egin ondoren. Ikusia nago Cirueñan.

Cirueñan?

Bai. Errioxan. Santo Domingo de la Calzadatik bertara. Handik pasatu nintzen duela bi urte, udan, Donejakue bidea egiten ari ginela. Hantxe, urbanizazio berri bat, hutsik. Salmenta kartelak ageri ziren etxebizitzetako balkoietan, telefono eta guzti, eta gehienak Gipuzkoakoak ziren. Ingurua, dena txukun-txukun, baina hondatzen, ez baita inor bizi. Horixe da errealitatea, eta Aroztegia egin nahi dutenek ere badakite. Hauen planteamendua da, hitzezkoa bederen, ez dituztela etxe guztiak batera egingo, saldu ahala egingo dituztela.

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



© 943 453 588 · www.sigacus.com



aholkukoop
Fiskalia Kontabilitate Laboratza

**EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA**

aholku@aholku.eus · 943 005 680
aholku.eus



Etxebizitzak, golfa, hotela... hori guztia egiteko baimenik badute?

Bai, badute. Nafarroako Gobernuak eman die baimena, proiektua udalaz gaindiko plan sektoriala izendatua dutelakoz. Gobernuaren argudioa da Aroztegiak interes soziala izan dezakeela. [Yolanda] Barcinaren agintaldia akitu baino lehen onartu zuten plana, eta interes sozialekoa dela erranez saldu dute, proiektua ez dela Baztanera mugatzen, Europako proiektzioa duela... Bistan da, maila edo bizimodu goreneko edo altuko pertsonen zuzendua nahi dute. «Europar zenbat aberats baditugu? 300.000? Tira, berrehun, gutxienez, hona erakartzea lortzen badugu, gure helburua lortu dugu». Kalkulu horiek dituzte eginak. Gobernuari iruditzen zaio Aroztegiak, agian, Nafarroako irudia bultzatzen dezakeela atzerrian. Proiektu hau ez da Nafarroara bideratua, Europara baizik. Nafarroaren irudia atzerrian zabaltzea du helburu: ingurune eder eta Lekarozkoa, jendeak gustuko du. Horrela saldu nahi dute: natura, aisialdia, kirola... Balio egokiak izan litezke, proiektuak higiezin negozioa ezkatutako ez balu.

Baztango Udalak ez du hitzik, ahalik?

Bai, badu, baina nafar gobernutik bigarren mailan utzi dute Baztango Udala. Urbanizazio lanak hasten direnean, udalaren baimenak beharko dituzte. Udalak ezin du baimenik ukatu, baina lanen jarraipena egin behar du. Jarraipen batzordea ere sortua dago, eta hor dira udala, enpresa eragilea eta talde politikoak. Bai-

ta Lekarozko zinpeko alkatea ere [Mattari Plaza bera gaur egun], baina nik erran nuen ez nuela batzordean parte hartuko salaketak zeuden bitartean. Zeren bide horixe hartu du enpresak, proiektuaren kontra dagoen jendearen kontrako salaketak jartzea. Baztango aurreko alkatea ere [Garbiñe Elizegi] salatu zuten, proiektuari “pelotazo urbanistiko” deitu ziolako. Oraingo alkatearen kontra ere [Joseba Otondo] jarri zuten salaketa, Elizondoko plaza utzi zuelakoz proiektuaren kontrako akanpada egin zezaten. Espazio publiko zela argudiatu zuten salaketan, alkateak ez zuela hori baimentzen ahal. Baina enpresakoek ere erabili izan dituzte

“

Arazoa ez da egon ez hotelean, ez golf zelaian, etxebizitzetan baizik, zeren hor ikusi da ‘pelotazo’ urbanistikoa dela proiektua. Aroztegiakoa ez da ‘pelotazo’ bakarra, espainiar estatuan leku askotan egin dute hori”

espazio publikoak: Lekarozen berean eskola utzi zitzaion proiektua aurkezteko eta hau eta hura. Ahazten zaie espazio publikoa erabiltzen ahal dute la bai proiektuaren alde eta bai kontra daudenek.

Zer giro da Lekarozen, Aroztegia afera hau dela kausa?

Herrian, batzuekin eta besteekin harreman normal bat izatetik, tratatu hotza izatera pasatu gara. Horrela definituko nuke egoera. Ez diogu bata berteazari agurra ukatzen, baina hotza da harremana. Jarri ditugun helegiteek proiektua gibelatu dute, urteak ere badaramatzagu gatazkan, eta jendea zalantzan jartzen hasia dago proiektua garatzen inoiz hasiko ote diren, oraingo egoera zein den ikusita. Herriko etxe batego haurrideak inplikatuak dira proiektu honetan, zeren etxeko alaba bat [Salvador Urbistondo] Arotzarenarekin ezkondua da, familia hurbilekoak dituzte, eta,



LUR HANDIENA

“Baztanen denik eta lur handienetarikoa da Aroztegia, Zigako Egozkue Jauregiarekin batera. Adibidez, 45 hektarea inguru da Aroztegia, eta kontuan izan behar da, garai batean batz bertze Baztango jendeak bi hektarea eta erdi zeuzkala. Mendialdean lur txikia izaten da, are txikiagoa Baztanen, zeren %85 lur komunala baita hemen. Herri inguruan dagoen lur pribatua, administrazioak noiz-bait saldua da, diru batzuk eskuratu eta kapital pixka bat izateko”.

ELIZA

“Agiriek garbi diote, Aroztegian ageri den baseliza “propiedad del lugar de Lekaroz” (Lekarozko lekuaren jabetza). Hala ere, Eliza hainbat ondare inmatrikulatzen hasi zelarik, bagenuen beldurra, San Martzial baseliza ere bere izenean paratua ote zuen. Erregistroa aztertu eta ikusi zen apezetxea, serorategia, hainbat baratze, kanposantu zaharra... inmatrikulatu zituela Elizak, baina ez baseliza, ikusirik “Lekarozko lekuarena” zela: Lekarozkoa, eta Lekarozena”.

Azken hitza IKA-MIKA

“Aroztegian bertan ginen argazkiak egiten, udaberriko egun ederrean. Mattari Plaza jauregia, maizter etxea eta baseliza erakusten ari zitzaigun, kanpotik beti. Belaian ginelarik, hantxe orotariko bat etorri, Lekarozko herritik Aroztegiaraino, kilometroko bidea eginik, Plaza eta argazkilaria belaitik irtenaraziz, zakar, baldar, hoska. Laster, Plazaren eta jauregiaren balizko zaintzailearen arteko ika-mika ozpina...”.

horrela, erabat aldatu dute Aroztegiako proiektuari buruzko iritzia. Familiakoak dituztela erranez justifikatzen dute jarra aldatzea. Guk, berriz, garai batean bezala jarraitzen dugu, proiektuaren kontra, gure interesak defendatzen. Horrek giroa txartzea ekarri du.

Gu solasean ari gara eta, bitartean, enpresa bere galgan ari da, lanean atergabe...

Baina lan horren fruiturik ez da ikusten. Nire ustez, egin duten akats handiena, eta larriena, izan da proiektua elkarriketa- ren bitartez ez bideratzea. Iruditzen zait proiektua inposatu egin dela. Legala da, legearen arabera, baina inposaketa hutsa. Ez da proiektuaren inguruan ezta- baidatzeko fororik izan. Zonaldean bertze proiektu batzuk ere garatu dira, eta jen- deak gogo onez onartu ditu, Baztanentzat aberasgarri direla ulertu du, eta ez da ara- zorik izan. Bi aipatzekotan, BKZ [Bidaso Kultur Zerbitzuak], eta Irisarri Land, kirol eta aisialdi jarduerak naturgunean gauza- tzeo proiektuak biak. Jendeak sustatzai- leen asmoak ezagutu ditu, iritzia eman du, ulertu du... Aroztegia, aldiz, ez du ulertu.

Zergatik ez du baztandarrak Aroztegia proiektua bere egin?

Enpresa horretakoak ez dira altxapeka etorri, baina ez da parte hartzerik izan. Haiek garbi dute helburua, eta da eko- nomikoa. Inbertsioa egin dute, eta ira- baziak behar dituzte. Ez dago bertzerik. Espainiako Estatuan bertze toki batzue- tan egin dutena kopia dute Aroztegi- an: lurrak birkalkifikatu, beren helburua be- tetzeko. Aroztegiak, bertzalde, inpaktu ikaragarria du ingurunean. Ez da inguru- nearekiko ez ingurumenarekiko inolako errespeturik. Nafarroan ez dira gisa ho- netako kasu aunitz, baina hor dira Ultza- mako eta Nafarroako Unibertsitatearen



golf zelaia, Iruñeko Gorraiz...eta, hala ere, ez dago Aroztegiak besteko inpaktu ekologikoa duen lanik. Horretan bakarra da Aroztegia. Helburua inmobiliarioa da, gogorra da horrela esatea, baina ez du bertze izenik.

Ermita ere afera da...

Bai, hori ere afera da. Aroztegi- an badira hiru eraikin: jauregia bera, maizter etxea, eta San Martzial baseliza. Beraiena dela erran zuen enpresak, eta guk ezetz, Le- karozko herriarena zela. Eta epaitegie- tan izanak gaituztu, eta epaileak, batzuen eta bertzeen dokumentazioa aztertu, eta erabaki du ez dagoela deus erraterik: ezin erran beraiena denik, baina ezta geurea dugunik ere, ez dugulakotz eskri- turatua. Hor ibili gara errekerimenduak aitzin eta gibel, erregistroko agiri guz- tiak erakutsiz gure aldetik, eta enpresa, berriz, ermitari dagozkion aipamen guz- tiak desagerraraziz. Hor ibili gara bide judizial eta zibiletan barna. Baztango

Udalak ikerketa batzordea osatu zuen halako batean, ermitaren afera argitze aldera, baina, batzorde hori osatu ordu- ko, enpresak Lekarozko herriaren eta Baztango Udalaren kontrako salaketa paratu zuen, ermita berea zuela erra- nez. Arestian erran dut: epaileak erabaki zuen Palacio de Arozteguia enpresak ez duela frogatu ondasun hori, baseliza, be- rea duela. Eta Lekarozko herriak ere ez duenez erregistroan eskrituratua, ezin frogatu geurea dugula! Dena den, guk ez dugu deus erregistratua: ez herriko pla- za, ez frontoia, ez eskola... ez dugu erre- gistratu beharrik izan ere! Erregistro gatazka hau, uste dut, hasi zen Eliza Na- farroan ondarea bere izenean paratzen hastean. Baseliza inork erregistratzeko- tan, berriz, Baztango Udalak erregistra- tu ahal du, baina ez Lekarozko herriak, gaitasun juridikorik ez dugula erraten baitgute epaitegietan. Ez dakit zenbat luzatuko den afera, ezta azken senten- tzia inoiz ikusiko ote dudan ere. ●



Soziolinguistika aldizkaria

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA ETA GLOTOPOLITIKA ALDIZKARIA

BAT 114. NAZIOARTEKO HIZKUNTZEN GARAPEN-LANKIDETZA

BELEN URANGA > Hitzaurre gisa.

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA > Lankidetzaren ikuspegi holistikoa.

TXEMA ABARRATEGI > Hizkuntza lankidetzaren dimentsio politikoaz. Estatu plurinazional bati eta nazio pluriestatal bati begira.

JULEN LARRAÑAGA, MIKEL MENDIZABAL, ANDONI BARREÑA > Nasak eta euskaldunak elkarri begira.

ROSA ELIZBURU > Nasa Yuwe biziberritze prozesua eta hezkuntza.

harpidetu edo oparitu > URTEAN 40 euro

www.soziolinguistika.eus/bat/harpidetza / 943 592 556 / bat@soziolinguistika.eus

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA. / Martin Ugalde K.P. / 20140 - ANDOAIN
 kluster@soziolinguistika.eus / bat@soziolinguistika.eus /
<http://www.soziolinguistika.eus/bat>

ARKAITZ ZARRAGA, ANE ORTEGA > Euskal-nasa kooperazioa helduen irakaskuntzaren ardatzean.

• IMANOL MINER > Maoriera, ordezkatzeta eta biziberritzea

• GUREAN ATALA: IÑAKI MARTINEZ DE LUNA ETA PABLO SUBERBIOLA > Hizkuntza-mudantza EAEko ikasleengan

• SOZIOLINGUISTIKAREN MUNDUKO LEIHOA.



Koronabirusak emandako zenbait irakaspen



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI**
EKONOMIALARIA

ARGIAk eskaintzen didan zutabe honetan behin baino gehiagotan kritikatu izan ditut globalizazioaren ondorio negatiboak. Izan ere, globalizazioa oinarrituta dago ondasunek, zerbitzuek eta finantza kapitalek munduan zehar zirkulatu dezaketela estatu ororen artean inolako oztoporik gabe. Jakina, zirkulazio libre horretatik at pertsonak geratzen dira, norbanakoei beraien herrialdean bizitzeko aukera besterik ez baitzaie uzten.

Globalizazio garaikide honen ekoizpen sistemak bi printzipio ditu: enpresentzat “garaiz dena” (*just in time*) eta “ekonomiaren eraginkortasuna”. Honi *toyotismo* deritzo. Orduan, arnasgailu baten osagai bat Txinan Espainiar Estatuan baino merkeago ekoizten bada, herrialde horretan inbertsioak burutuko dira osagai hori ekoizteko; eta osagai hori garaiz iritsiko da ekoizpen kateak funtzionatzen duen artean. Alabaina, kate hori eteten bada, koronabirusaren garaioan gertatu den bezala, azken produktua ezin izango da amaitu, eta hortik arazoak.

Berdin gertatuko da edozein makina (garbigailuak esaterako) Euskal Herrian ekoizteari utzi eta bere produkzioa lekualdatzen bada, Txinara adibidez, gero gure artean saldu ahal izateko. Erosleari merkeago aterako zaio, kontua ez baitira hartuko garraioan sortuko dituen kalteak ingurumeneari. Halaber, lekualdatzen denean soldata apalagoen bila

Gizabanakook bezero bihurtu gaituzte, ez zerbitzu publikoen erabiltzaile; eta politika honen aplikazioa adineko egoitzetan burutu da, non osasun profesionalak eta medikuntza materiala mugaraino murriztu diren

joaten dira inbertitzaileak eta horrek esan nahi du *dumping* soziala dagoela, estatuaren diru laguntzak ez daudenean.

Bigarren printzipioak dio “ekonomiak eraginkorra” izan behar duela. Printzipio honen ondorioz gizabanakook bezero bihurtu gaituzte, ez zerbitzu publikoen erabiltzaile; eta politika honen aplikazioa adineko egoitzetan burutu da, non osasun profesionalak eta medikuntza materiala mugaraino murriztu diren. Erabiltzaileak, adineko egoiliarak, bezero soil dira, biltegietan lekututa bezala, zeinetan funts putre inbertitzaileek mozkin garaienak lortzen saiatzen diren bere akziodunen artean dibidendu opa-roak banatze aldera.

Laburbilduta, globalizazio garaikideak, *toyotismoan* oinarrituta, ekoizpen kostuak erabat apaldu ditu, ekoizkin eta

osagarrien stock-ak desagerrarazi, eta garraiobideak biltegi bihurtu. Eta ondorioz, ekoizkinen prezioak jaitsi dira, baina ingurumenak pairatzen dituen kalte ordainak ez dira kontutan hartuko eta “biltegi” berriak, hots errepideak edo itsasbideak eraikitzen, batik bat, diru publikoa erabiliko da.

Honen guztiaren irakaspen nagusiak izan behar du ekoizpen sistema erabiltzaileei hurbildu behar zaiela, eta kontsumitzaile horien inguruan burutu behar dela oinarritzko ondasunen ekoizpena, batik bat elikagaiena edo osasungintzarena. Izan ere, hornitzaileak ekialde urrunean badaude, gaur egun gertatu zaigun bezala, herrialde haiekiko menpekotasuna izango dugu, lehentasunezko herrialdeak bidean azalduko dira eta behar ditugun aparailuak eta botikak erdieste asko kostako zaigu, are gehiago estatuturik gabeko herrialdeei.

Hau guztiau munduko elite ekonomikoek ahalbideratu dute, helburu gisa soilik mozkin pertsonalak kontutan dituztelako eta beraien herrialdeko estatuak laguntzaile egoki bihurtu dituztelako. Egoera hori itzultze aldera, ekonomia-aren helburua sakonki aldatu behar dugu: epe laburreko mozkinak akziodunen artean banatu ordez, lehentasuna, erabiltzaileen beharrianak asetzea izan beharko luke, beste modu batean, ondasunen ganbio edo truke balioa, erabilera balioak ordezkatu beharko luke sistema ekonomiko eraldatuak. ●

Sir Isaac Newtonen konfinamendua



MAIALEN BERASATEGI CATALÁN
ITZULTZAILEA



PAULA ESTÉVEZ

Denok ez ginen jaio Sir Isaac Newton izateko. Izurri latz baten ondorioz, Cambridgeko Unibertsitatea itxi eta etxera bidali behar izan omen zituzten Newton eta haren kideak 1665. urte inguruan, eta halabeharrezko etxealdi hartan ikusi omen zituen Isaac gazteak, amaren baratzean, sagar helduak arbolatik erortzen, konk, konk. Badakigu, gutxi-asko, zer gertatu zen gero. Istorio horretatik segitzen da, beraz, Newton jauna ez zela izan alferrontzi bat, eta ezin hobeto aprobetxatu zuela konfinamendua. (Itxialdiko ustezko denbora libre ugariagoan eta etxearen ustezko goxotasunean hamazazpi liburu irakurri, Interneteko tutorialen bidez *superfit* jarri eta mundua aldatuko duen teoria zientifikoren bat garatu ez duten guztiei: atsekabea lagun.)

William Bynum zientzia-historialariak Newtonen pasadizo agian alegiazko hori kontatzen du EHUn ZIO bildumako *Zientziaren historia txiki bat* liburu atsegin eta jakingarrian (Juan Garziak beti bezain dotore ondua da euskarazko itzulpena). Hainbat zientzialari, behar bezain zuhur, “Ezer ez dakidala baizik ez dakit” esan eta esan ari zaizkigun honetan, eta hainbat zientzia-dibulgatzaile,

“jakitsuagotzen gaituen zalantza orokorraren baitan”, zomorro malapartatuaren berri al bait ulergarrien ematen ari zaizkigun honetan, badirudi aditu dudagabe bihurtu garela denok, kontrakarrean: nork ez dauka, bada, bere teoria koxkorra izurriaren hasieraz, maskarak egoki erabiltzeaz (are, euskaraz maskara esateko hitz egokiaz), hurrengo birus-oldeaz, gizartearen patuaz...?

Informazioa eta jakintza oso ondo bereizten ez dituen gizarte batean bizi gara; baita zalantza gaitzesten duen gizarte batean ere (oso kontu maskulinoa hori, derradan bidenabar). Eta argitasun itxurako nahasmen hori guztia finegi diseinatuta dago, bikainegi funtzionatzen du kasualitatea izateko. Azkenaldian, esaldi bat etortzen zait maiz gogora, batzuen ustez Newtonek esana dena eta beste batzuen ustez ez: “Urrunago iritsi bada nire ikuspegia, erraldoi batzuen sorbalda gainean jarrita egoteari zor zaio hori”. Bada, nik ez dakit nora garamatzan gure oraingo erraldoi mozkor honek sorbalda gainean, baina horrenbeste leiho eta horrenbeste zulo eta horrenbeste ostertz erakusten dizkigu aldi berean, azkenerako susmo sorra pizten baita ez ote garen ari gehiago miopetzen

eta motzagotzen, jakitsuagotzen baino.

Esaldi ospetsuaren jatorrizko zentzuan, norbere aurretik bidea urratu dutenak dira noski erraldoi horiek: beren jakintza gerorainotu duten arbasoak. Orainaren eta egunerokoaren istingan hankak zeharo lokaztuta, ordea, ez gara askorik jabetzen gu ere erraldoiak izango garela ondorengoentzat, sorbalda gainean eramango ditugula noizbait, auskalo nondik, auskalo nora: eta izan gaitzek erraldoi sendo eskuzabalak, baina izan gaitzek erraldoi baldar buruzaleak ere. Ahaztu gabe, jakina (salba gaitzatela “Denon artean lortuko dugu” esaldi ospetsuaren erabilera tranpatitiko), denok ez dugula botere bera erraldoi horren jitean eta jitoan eragiteko.

“Lehengoa berreskuratu”, “aurrekora itzuli”: maskaren azpitik etengabe aditzen diren desideratum-ak. Baina ez gara normaltasunera itzuliko, ez: normaltasunean gaude eta. Desjabetuak desjabetuago, eriak eriago, hilak hilik. Dena normal. Harri-puska mardul bat baita normaltasuna, bere hartan irauteko prestatua. Eta Newtonen 1. Legeak zera dio: “Gorputz oro edo egonean dago edo uniformeki mugitzen da ez badu beste zerbaitek haren gain eragiten”. ●



ANUNTXI ARANA
ANTROPOLOGOA

Ezetza ezetz

Aurtengo udak, beroa ekarriko duen arren, ez du aurrekoen itxura bera izango, ekainetik irailera arte ez dugu euskal irrati-telebistetan entzungo nonahi eta noiznahi “jaia lehertu dela”. Agian, berri horien hutsunea hemengo eta munduko informazio interesgarriez beteko digute.

Hargatik, ez dira eten egingo besta giroan gertatu ohi diren eraso sexistak, eta beharrezkoak izango dira berriz ere haien aurkako kanpainak. Holakoetan erabiltzen den slogan bat aipatuko dut, zehazkiago euskaraz hartzen duen forma. Eskumenik ez dudan arloan sartuko naiz –barkatu eragozpenak–; jakina da euskaldun guztien baitan filologo (izan nahi duen) bat ezkututzen dela, eta horrek harrrapatu nau, baina Euskaltzaindikoa adituekin lehiatzeko inolako asmorik gabe.

Hasieratik hasteko, erdarara jo behar aldi honetan ere, delako slogana hortik heldu baitzaigu: “*No is no*”, “*No es no*”, “*Non c’est non*”. Laburra, zorrotza eta ongi pentsatua, baina ez euskaraz pentsatua. Eta euskarara ekartzeko orduan zalantzak badira, orain arte ez da forma adostu batera iritsi eta denetarik entzuten da.

Harrigarriena hauxe izan da, iaz entzuna: “Ez da ez”. Itsusia, ezta? Horren ondoan dozena erdi aldaera bederen

badira: “Ez beti da ez”; “Ez, ezetz da”; “Ezetx da ezetz”; “Ezetza beti Ezetza”; “Ezezkoa beti da ezetz”; “Ezetza beti da ezetz”; “Ezetza beti ezetz”...

Azken bi hauek, segur aski hobere-nak, Altsasuko *Guaixe* aldizkarian eta Arrigorriagako Madalenetan erabili dituzte besteak beste, euskarak duen forma zolia eta oso ezaguna baliatuz, ondoko adibideetan azaltzen dena: “Hitza hitz”, “Txoria txori”, “Joanak joan”, “Deabrua deabru”, “Gizona gizon, katua mixon”, “Neskato zaudenean, etxe ona edo txarra, nagusia nagusi”, “Egia egi, ogia ogi, ardua ardu, bi ta bi lau”, “Erregea errege” eta, abestiak dioena, “Basta ederragatik, asto duk astua”.

Hizkuntza gaietan dudak sortzen direnean, molde zaharrei begira aurkitzen dira irtenbideak, haiek ez dute herratzen, ez dute adierazgarritasun vs zuzentasun dilema jasaten. Garai batean oso isekatua zen jatorrismoak ez du gaur egungo euskararen kalte handiagoea egingo lehortean erauntsi on batek baino. Tradizioaren arabera “Ezetza ezetz” dateke, naski, euskarazko formula onena. Gero, apaintzeko orduan, nork bere hautua. Eta garrantzitsuena, hitz performatiboa izan dadila, eta aurtengo uda egundainoko dibertigarriena izango al da, jaiekin edo gabe. ●



UXUE APAOLAZA
IDAZLEA

Dantzarik gabe

Titularrek zioten hirugarren fasean gaueko dantzalekuak eta tabernak ireki ahal izango zirela, baina dantzarik gabe. Eta dantzatzeko asmorik ez bazenuen ere, baieztapen horrek beste guztia ekarri dizu gogora; distantziak, nahigabe hurbiltzeko beldurra, bestea ez mintzeko, noski... eta han-hemenka itxi dituzten *taberna* klandestinoak.

Ez dago taberna bateko maitasunaren beroa bezalakorik (*no hay como el calor del amor en un bar*), kantatzen zuen Gabinete Caligari. Ezezagunen eskuak estutzea, esku ahurrean kili-kiliak egitea, aurpegiei eskuzko markoak jartzeta, listua partekatzea... arriskutsua da

orain, momentuz... Tabernako maitasunak ikusmen lausotua dauka (eta garai batean kezko hodeiek babesten zuten) eta, maiz, ez du izen-abizenik ere uzten gure memorian, ezta telefono zenbaki bat ere... nola abisatu positibo eman duzula?

Listuaren bidez asma daiteke zer edan duen besteak, garagardoa edo zer-bait gozoagoa, kalimotxoa, erretzailea den, agian mihia apur bat anestesiatu dion hautsen bat ibili den bere hodieta barna... Bekatu asko izango dira.

Kasetearen garaikoak dira hitz horiek. Baina oraindik ez dago taberna bateko maitasunaren beroa bezalakorik. ●

Naturaren mintzo argia



FERMIN ERBITI ZABALTZA
KAZETARIA

Negu amaierako egun batean, adimen artifizialaz asko dakien Humberto Bustince katedradunaren hitzaldia entzun nuen. Ahoa bete hortz utzi ninduen. Gaiaz zerbait irakurria bannuen ere, horretaz (horretaz ere) deus gutxi nekien. Pare bat orduko saioaren ondoren, bi konklusio nagusi atera nituen: adimen artifizialak izugarritzko iraultza dakarrela gure bizitzako arlo askotara; eta, bigarrena, ikaragarria dela gizakiaren ahalmen eta boterea, makina adimentsuak sortzeko gai izateraino.

Handik egun gutxira, kontrapuntua: inork ikusten ez duen birus bat gai da mundua hankaz gora jartzeko. Hain argiak izanagatik, ahulak gara, oso txikiak. Mende hasieratik jainkoturiko globalizazioan ere, oro ez da urre. Ilunetik ere badoa, krisiak frogatu digun bezala.

Krisiaren hasierak beste lezio bat utzi zigun. Bi hankako animalia ase ezinak etxean sartu eta orduantxe hasi zen planeta arnasa hartzen. Behin hitz egiteko aukera paregabea izanda, natura ez da mutu gelditu. Guztiok ulertu eta, aldi berean, guztiok lotsatzeko moduko erantzun argia, ikusgarria eta ikaragarria eman digu.

Batzuek berehalako aldaketa sakonak eskatzen dituzte. Bestela, nonbait, gureak egin du. Oinak lurtean dituenak, ordea, badaki amets ederrak horixe direla: ametsak. Orain arteko martxa eroa birbideratzen hastea asko ote den ez dakit. Aski bai, gehiagorik nekez lortuko baitugu

George Steiner pentsalari hil berriak ederki azaldu digu arazoa: gu guztiok gonbidatu etorri gara mundura, apopilo. Eta zein da edukazio oneko apopiloaren betebeharra? Ingurua zaindu, hemendik alde egitean etxea aurkitu dugun bezain txukun (edo txukunago) uzteko. Begi bistakoa da: guk ez dugu gonbidatu onen antzera jokatzeko. Basatiak gara os-

tatu eman digun planetarekin. Hori ere erakutsi digu krisiak.

Horren aitzinean, batzuek berehalako aldaketa sakonak eskatzen dituzte. Bestela, nonbait, gureak egin du. Oinak lurtean dituenak, ordea, badaki amets ederrak horixe direla: ametsak. Orain arteko martxa eroa birbideratzen hastea asko ote den ez dakit. Aski bai, gehiagorik nekez lortuko baitugu.

Krisiak arazo zahar eta sakonei heltzeko beharra erakutsi digu: ekonomia, kontsumoa, energia, zerga-sistema, osasun zerbitzuak, irakaskuntza, ikerketa, digitalizazioa... Hamaika gai potolo, gutxienez Europa mailako erantzuna eskatzen dutenak. Steinerrek Europa “zahar eta nekaturia” ikusten zuen: “Munduko turismoa hartzeko leku bihurtu da. Europan oso pisuduna da iraganaren zama. Etorkizunik ote duen, hori beste kontu bat da”.

Koronabirusaren krisiak ataka larrian jarri du mundua. Europaren hasierako erantzuna itxaropentsua izan da. Aurreko krisian ez bezala, ikuspegi soziala nagusituko dela ematen du. Ez da abiapuntu txarra kontinente zaharra berpizten hasteko. Erronkak merezi du, dena baitago jokoan. Euskal Herriko biztanleria-
ren etorkizuna ere. ●



HONDARTZAK / PLAYAS




ARAU OROKORRAK / NORMAS GENERALES

ORDUTEGIAK / HORARIOS


11:00-20:00

**HONDARTZAN EGON ETA
BAINATZEKO**
ESTANCIA EN LA PLAYA Y
BAÑO




SEGURTASUN-TARTEA / DISTANCIA DE SEGURIDAD

Errespetatu 1,5 metroko segurtasun-tartea uretan eta uretatik kanpo
Mantén la distancia de seguridad de 1,5 metros dentro y fuera del agua



TOALLA / TOALLA

Ez partekatu toallarik
No compartas tu toalla



BANDERA / BANDERA

Hondartzaren OKUPAZIO-MAILA HANDIA
DENEAN, bandera LARANJA jarriko da
Cuando se llegue a un NIVEL ALTO DE
OCUPACIÓN de la playa ondeará una bandera
NARANJA



**HONDARTZAINAK ETA SOROSLEAK
HONDARTZAINAS Y SOCORRISTAS**

Bete salbamendu eta sorospen-zerbitzuen
jarraibideak
Sigue las instrucciones de los servicios de
salvamento y socorrismo

ORDUTEGIAK / HORARIOS

00:00-11:00 20:00-24:00

KIROLAK EGITEKO
ACTIVIDADES DEPORTIVAS



Sintomarik baduzu, ez sartu hondartzara
Si tienes síntomas no acudas a la playa



Garbitu eskuak sarritan
Lávate las manos con frecuencia

**BETE OSASUN-AGINTARIEN
GOMENDIOAK**

SIGUE LAS RECOMENDACIONES
DE LAS AUTORIDADES SANITARIAS

Hondartzen webgunean eta BizkaiUP aplikazioan dituzu hondartzei buruzko argibide guztiak
Conoce toda la información de las playas a través de la web de playas y de la aplicación BizkaiUp



Hondartzen webgunea
Web de playas



BizkaiUp - Android



BizkaiUp - IOS



 **Bizkaia aurrera!**

SISTEMAREN PISUPLEAN ITOTA



Bideo bati esker ezagutu dugu kasua, eta horrek piztu du herriaren haserrea. Gizonezko beltz bat lurrean, polizia zuria bere lepo gainean ia hamar minutuz, haren erreguei entzungor. Sistemaren pisua gainean zuela hil zuten George Floyd, itota. Erorien egunean galdu zuen bizia, AEBetako jairik handienez, askatasunaren eta nazioagatik bizia emandakoen omenezko egunean; segurtasun indarren belaun batek arnasa moztu ziola. Bere heriotzak hautsak harrotu ditu AEBetan, protestak estatu denetan orokortu dira eta nazioartera zabaldu. Ezin dutela arnasik hartu salatu dute, arrazakeria sistematikoak George Floyd eta izenik ez duten beste asko itotzen jarraitzen duelako.

 MARIA ORTEGA ZUBIATE

Floyd azken hitzak lelo bihurtuta, “arnasa hartu ezinik” daudela salatu du askok. Poliziaren arrazakeriak ito egiten dituela, eta sistema bera errotik aldatu beharra dagoela diote manifestariek. Baina hitz horiek, Floyd entzun aurretik, Eric Gardnerri entzun genizkion; 2014an polizia zuria batek itota hil zen beste gizon afroamerikar bat. Bi irudien artean, sei urte eta beste mila izen gabeko biktima, beste askorik ez da pasatu.

George Floyd zerrenda luze, amaiezin bateko izen bat gehiago baita. Baina sarri gertatzen den bezala, bere izena xanpain botilaren kortxoa izan da; presioz, amorrutaz atera diote kortxoa. Eta behin hori eginda atera dira atzetik jada ahaztuak zeuden izenetako batzuk.

“Ezin dugu hau gertaera isolatu moduan hartu. Eraikinak ez daude sutan gure anaia George Floydengatik soilik. Sutan dago dena, hemengo jendea, Minnesotakoa esa-



Sutan dagoen Minneapoliseko Poliziaren egoitza aurrean protestan, maiatzaren 28an.

JOHN MINCHILLO / AP



SCOTT OLSON/GETTY IMAGES

ten ari delako herrialde osoari: nahikoa da!", adierazi du Tamika Mallory AEBetako Emakumeen Martxako kideak.

Herrialde osoko biztanleriaren %13a baino ez dira beltzak, eta hala ere, poliziak tirokatutako gizatalde ugariena dira; milioiko 30 beltz hil ditu poliziak tiroz 2015etik, zuriak bikoitza baino gehiago. Eta hori, kontuan hartuta armarik ez izateko probabilitaterik altuena duen komunitatea dela beltzena. Are gehiago, beltz gazteen artean, heriotza arrazoi ohikoenen artean dago poliziarren indarkeria. Datuok *The Washington Post*ek jaso ditu bere webgunean, poliziak ez baitu beren eskuetan hildakoen daturik ematen.

AEBetako komunitate beltza ez da polizia indarkeriaren biktima bakarra, gainontzeko komunitate arrazializatuak ere zuriak baino aukera gehiago dute poliziek tiro eginda hiltzeko. Komunitate

latinoan, adibidez, milioi bat lagunetik 23 hil ditu poliziek, 13 zuriak kasuan.

Floydren heriotza, azken finean, beltzek herrialdean bizi duten errealitatearen isla baino ez da izan askoren begietara. Esaterako, zuriak baino hiru urte eta erdi laburragoa dute bizi esperantza beltzek. Pandemiaren garaioan ere, bereziki eragin die birusak: hildakoen %24a beltzak izan dira, osatzen duten biztanleriaren ehunekoaren ia bikoitza, The COVID Racial Data Trackerren arabera.

Rayshawn Ray Marylandeko unibertsitateko Soziologia irakasleak adierazi bezala, kolektiboaren esku ez dauden faktoreek eragiten dute egoera hori: pobreziak edota kirola egiteko aire libreko gunerik eta janari osasuntsua erosteko dendarik ez izateak, besteak beste. Beltzek jasotzen duten osasun arretaren kalitate eskasa agerian utzi zuen Evelyn

J. Patterson soziologoak 2010ean kalera-tutako ikerketak: espetxeratuta zeuden beltzen osasuna kalean zeudenena baino hobea zen, atera kontuak.

50 URTEKO PROTESTARIK HANDIENAK

Kaleak moztuta, jendea zaldi gainean ukabilak airean Lakotak bailiran, komisaldegia eta saltokiak sutan. Black Lives Matter mugimenduak hauspotuta, herritarrek kaleak hartu dituzte hiri askotan, pandemiak eta sistemak ahoa estalarazi badie ere. Justizia aldarrikatzen dute, Floydentzat eta komunitate beltzarentzat. Minneapolisen hasi baziren ere, herrialde osora zabaldu dira, 50 estatuetara.

Martin Luther King 1968an hil zutenetik, herrialdeak ikusi dituen protestarik jendetsu eta orokortuenak direla diote egoera ezagutzen dutenek. 500



urteko erresistentzia borrokan, ehunka altxamendu zenbatu ditu The Decolonial Atlasek, baina aurtengoak ezberdinak direla dio *The New York Times* egunkariak. Adibide aipagarria da Seattlekoa, herrialdeko industriaren sinboloa den hirian “Capital Free Zone” delakoa sortu dute, kapitaletik “askatutako” eremua. Beren egunerokoa alde batera utzi eta kalera atera dira manifestariak.

Protesta gehienak baketsuak izan dira nabarmendu dute bertakoek. Zenbait hiritan gertatu diren iskanbilak batez ere zuriek eta poliziak hauspotuak izan direla ere salatu dute batzuek. “Polizia mugimendu politiko eta protestetan infiltratzea ohikoa da. Baina nork edo zerk bidali du jendea hirietara iskanbila sor dezaten?”, galdetu du *Moon of Alabama* agerkari estatubatuarrek.

“INDARKERIA ZURIENGANDIK IKASI DUGU”

Hain juxtu, indarkeriaren erabilera bihurtu da eztabaidagai, beste behin. Mugimendua bortitza dela eta horrek arrazoa kentzen diola esaten dutenei erantzun die Tamika Malloryk: “Zuek ordaindutako jendea ari da gazteak eta haserre dagoen jendea probokatzen, harriak botatzen, kristalak apurtzen eta eraikinak erretzen. Egin ezazue, zuen hitzetan herri honek ordezkatzan duen hori; *pertsona askeen lurraldea, denon-*

tzako. Ez da hala izan beltzontzat. Eta nekatuta gaude. Ez hitz egin lapurretez. AEBek lapurtu egin diete beltzei, AEBek lapurtu egin diete indigenei, eurak direnean ona iritsi ziren lehenak. Beraz, lapurreta da zuek egiten duzuen. Zuen gandik ikasi dugu. Indarkeria zuengandik ikasi dugu. Eta oso erraza da indarkeria hau geratzea; atxilotu poliziak, inputatu poliziak!”

Guardia Nazionala kaleetan, militarrek kaleratzeko mehatxua presidentearen ahoan. Hamar hildakotik gora protestetan, 9.000 atxilotu. “Nire administrazioak George eta bere familia-rentzako justizia bilatzen lagunduko du, bere heriotza ez da alferrik izango. Baina ezin dezakegu utzi protesta bake-tsua jendetza haserretu batek kakaztu ditzan. Iskanbiletako biktima handienak komunitate pobreenetako biztanleak dira, eta beren presidente bezala, berriek babesteko borroka egingo dut” adierazi zuen Donald Trumpek Floyd hil berrian. Istiluek zabaltzen jarraitu zuten.

Hurrengo egunean armada kalera ateratzeko mehatxua egin zuen, eta bi egunez mantendu, AEBetako Defentsa idazkariak ideia hori baztertu zuen arte. Trumpek Matxinadaren Legea probestu nahi zuen armada kalera atera ahal izateko, Defentsa idazkariak, ordea, XIX. mendeko hasierako lege hori “muturre-

ko egoera larrietan eta azken baliabide bezala” erabili beharko litzatekeela argudiatu zuen.

Dena den, AEBetako armadako erre-serbistek osatzen duten Goardia Nazionala dago kaleetan. 2005etik, Katrina hurakanaz geroztik, Goardia Nazionalaren erakustaldi handiena egiten ari dira: 67.000 soldadu erreserbistak hartu dute parte 23 estatutan –estatu bakoitzeko gobernadorearen esku baitago Goardia Nazionalaren presentzia onartu ala ez–.

Etxe Zuria itzalirik, Trump bunkerrean ezkutatuta. Washingtonera ere heldu ziren protestak, Trumpen etxe ofizialera. Jendetza bildu zen St. John’sen eliza inguruetan; AEBetako presidente guztiak joaten dira bertara. Manifestariak baten bat zuten atzetik bultzaka, eta jende pilaketak sortu ziren. Elizan esnea zuten gordeta, poliziak botatako gasetik babesteko. Baina H kaletik istiluen aurkako polizia olde bat zetorkien gainera, eliza inguruetako jendea bertatik kentzeko.

“Manifestariak ez ziren konturatu azkeneko poliziak, eliza alboan zegoenak, gomazko pilotadun pistola jendeari zuzendua zuela etengabe. Istiluen aurkako poliziak bere armak horren agerian uzten baditu mezu argi bat zabaltzen duelako da: hortik ez bazoaz zure aurka erabiliko ditut. Orduan hasi ziren gomazko pilotak eta zorabiatzeko grana-



Arrazakeriaren eta poliziaren biolentziaren aurka Bartzelonan egindako protesta.

AP

EREMU ASKEA SEATTLEN

Seattle hiriko Capitol Hill barrutian astebetetik gora luzatu dira poliziaren eta manifestarien arteko istiluak, harik eta konfrontazio eremua gune aske eta autonomo bilakatu duten arte. Ekainaren 8an poliziak eremua utzi zuela baliatuz, manifestariek barrutia kontrolpean hartu eta Capitol Hill Autonomous Zone (CHAZ) izendatu dute. Poliziak jarritako hesiak behera bota zituzten, eta hesi horiez baliatuta barrikadak eraikitzeari ekin zioten askatutako eremuaren bueltan. "Polizia Seattleko Kapitoliotik erretiratu zenean, batzuk kaosa espero zuten. Eremu autonomo berriak, aldiz, hitzaldiak, doako janaria eta elkarri laguntzen dioten pertsonak ditu", diote bertakoek. Sei eraikinen bueltan, barrikadekin segurtatuta dago eremua. Antolatzaileek eremuan geratzeko asmo irmoa agertu dute beren eskakizunei jaramon egiten dieten arte: hala nola, poliziaren gastua programa sozialetara bideratzea. Dena dela, eremu askearen sorrerak ez ditu protestak bertara mugatu. Gune askeaz harago, herritarrek aldarrikapenei eta salaketei eutsi diete. Horren adibide, asteazkenean Seattleko udaletxea hartu dute hainbat pertsonak. Vitalist International-en arabera, "manifestariak Hong Kong-eko tanterako kale borroka taktikak ari dira baliatzen poliziaren erasoei aurre egiteko eta azpiegitura berreganatzen hasi dira".

 AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

dak botatzen. Atzean geratutakoren bat edo, batez ere, kazetariren bat aurkitzen bazuten bultzatzen edo jo egiten zuten", idatzi zuen Pablo Pardok handik bertatik *El Mundon*.

Polizien mugimendu horrek guztiak arrazoi bati erantzuten zion: bunkerretik atera zen Donald Trump, eta Biblia erakutsi zuen elizaren parean jarrita. Elizak berak kritikatu du ekintza: "Argazki propagandistikoa" dela eta "eliza dekoratu bezala" erabili duela leporatu dio Mariann Budde Washingtongo gotzain episkopalak.

Bien bitartean, bere gotorlekutik, Bigarren Mundu Gerra aurretik Alemaniaren sortutako Antifascist Action talde antifaxista erakunde terroristatzat jo du presidenteak -Twitterren bere ohiko estiloan bidalitako mezu baten bidez-, eta kaleko istiluen erantzule bihurtu du.

Trumpik ez Kongresuan, mugimendu antifaxista terrorista. "Defund the Police" irakurri daiteke kaleetan, Poliziari aurrerontua kentzeko eskatuz gobernuari. Kaleetako aldarria Kongresura eraman du Alderdi Demokratak, bere erara. Poliziek "gehiegizko indar erakustaldiak" eta "bereizketa arrazistak" egitea debekatzeko eskatu du. Herrialdearen historia garaikidean egindako lege proposamen zabalena da Polizia gehiegikeriari dagokionez, eta poliziak "identifikatzea eta fiskalizatzea" ahalbidetuko luke.

Presidenteari "herrialdea zatitzea" egotzi diote demokratek, baita zenbait errepublikarrek ere, hartu dituen erabakiek istiluak lasaiarazi baino hauspotzen dituela argudiatuta. Dena den, oraindik ikusteko dago demokratek aurkeztutako lege proposamenari babesik emango ote dioten errepublikarrek.




BRENDAN SMIALOWSKI/AFP

INPUNITATE SISTEMATIKOA

"Jendearen zerbitzurako eta babeserako direla suposatzen da, baina ez nuen inor ikusi atzamarrik ere mugitzen Floyd bere bizitzagatik erregutzen ari zen bitartean. Inork ez zuen ezer egin berrari laguntzeko". Horra Geogre Floyden lehengusinarekin hitzak. Floyden heriotza lau poliziak izan zuten zerikusia; lepo gainean bakarra bazuen ere, beste hiru zeuden han. "Animaliei baino tratu txarragoa eman zioten", gehitu du hildakoaren arrebak.

%99

2013-2019 artean poliziek
hildako herritarren kasuen
%99a ez da epaitu.




- Agenteak kargu kriminalik gabe
- Agente epaituak
- Agente kartzelaratuak

x3

Poliziaren eskuetan
hiltzeko ia hiru
aldiz probabilitate
gehiago dute
beltzek.

2015etik
poliziaren
eskuetan hildako
estatubatuarrak,
milioi biztanleko.



Iturria: The Washington Post


- 42 milioi beltzetatik 1.291 hildako.
- 39 milioi latinoetatik 900 hildako.
- 197 milioi zurietatik 2.468 hildako.
- Beste komunitateetako 49 milioietatik 219 hildako.

BLACK LIVES MATTER

x1,3

Arma izateko zuriak baino
1,3 aldiz probabilitate
gutxiago dute beltzek.

2013-2019 artean
armatu gabe
zihoazela Poliziak
hildakoak.



- Zuriak
- Latinoak
- Beltzak

Iturria: Mappingviolence.com



EUSKALERRIA IRRATIA

NDIAYE GOGOAN. Iruñeko Txantrea auzoko omenalditik bereziki hunkituta atera zen jendea. Senegalgo komunitateak salatu du Ndiaye Iruñeko komisarian hil izana ez duela inork ordaindu. Poliziaren sindikatu batek berriz, iragarri du ekimen legalak abiatuko dituela omenaldi horren aurka.

Heriotza gertatu bezain pronto, Floyd ito zuen Derek Chauvin polizia eta bera geldiarazteko ezer egin ez zuten hiru lan-kideak kaleratu zituzten. Floyd hilaketa lau poliziei leporatzeko eskatu zuen arre-bak. Hasieran Chauvini hirugarren gradu-ko hilaketa eta hilaketa zuhurtziagabea leporatu zioten. Hau da, nahi gabe eragindako heriotza bat izan zela, eta gehienez 25 urteko kartzela zigorra ezarri ziezaioketen. Fiskaltzak bigarren gradu-ko hilaketa igo du akusazioa, nahi gabe hil baina minak eragiteko asmoz egindako kasuetan ezartzen dena; gehienez 40 urteko kartzela zigorra ezarri diezaiokete. Epaiaketa-aren aurretik aske geratu nahi badu 1,24 milioi dolarreko fidantza ordaindu behar du, zenbait baldintza beteta milioi batean geratu daitekeena. Horrez gain, beste hiru poliziei, Tou Thao, J. Alexander Kuengi eta Thomas Laneri, Chauvin zirikatzea eta laguntzea leporatu diete. Erabaki hori ospatu du Floyden familiak, "justiziara bidean pauso garrantzitsua" dela iritzita.

Minneapoliseko Udal Kontseiluak, gainera, Polizia desegiteko mozioa onartu du. Hamabi kideetik bederatzi bat etorri dira Polizia Saila desegin eta komunitatearen ikuskaritzan oinarritutako segurtasun publikoa ezartzearekin. Beren zaintza eta segurtasun publikoko sistemak AEBetako komunitateak "babe-zen ez dituela" adierazi du Udal Kontseiluko lehendakariak, eta erreformak aurrera egingo duela baieztatu du.

Floyd kasua salbuespena da, ordea. AEBetan gertatzen diren polizia gehiegikeria kasu gehien-gehienetan poliziek ez dute bide judizialik jasaten. Mapping-violence.com web orrialdeak jasotako datuen arabera, 2013 eta 2019 artean poliziek hil dituzten pertsonen (7.666 pertsona) kasuen %99an ez diote hilaketa inori leporatu.



Ezker-eskuin: Derek Chauvin, Tou Thao, J. Alexander Kueng eta Thomas Lane, Floyd hiltzea egotzita espetxeratura.

Hain zuzen ere, inpunitate hori izan zen Black Lives Matter protestak martxan jarri zituena, 2012an Trayvon Martin 17 urteko gazte beltza poliziak tiroz hil eta gero. Hilaketa leporatu bazioten ere, George Zimmerman polizia absolbitu zuen epaileak, bere buruaren defentsan egin zuela argudiatu eta gero.

NAZIOARTEKO OIHARTZUNA

AEBetan hasi bazen ere, jada ez da estatu-batuaren kontua soilik. Mundu zabalera hedatu dira protestak, George Floyd polizia gehiegikeria sistematikoaren bikti-

ma bat gehiago baino ez dela gogoratuz. Atlantikoaren alde batean zein bestean, baita Ozeano Barearen beste aldean ere, beren estatu- eta segurtasun indarren eskuetan hildako komunitate arrazializatu-etuak biktimak ekarri dituzte gogora.

Amerikako kontinentean 500 urte baino gehiago daramatzate erresistentzian jatorriko herriek lehenik, eta esklabo eraman zituzten milioika lagunak ondoren. Horiek eta orduko sistema jasan dutenen ondorengoak gogoan, sistema errepikatzen dutenen aurka jo dute hainbat lekutan, sinbolikoki. Hala, sistema esklabista eta koloniala bultzatu zuten pertsonaien estatuak eraitsi dituzte eta esaterako, uretara bota dute Bristolgo esklabista famatu baten estatua, XVII. mendeko Edward Colstonena. Anberesen (Flandria) Leopoldo II.aren estatua kendu du Udalak, manifestarien pinturak jaso eta gero. "Kolonialista" eta "arrazista" hitzak ikusi dira munduko ehunka tokitako estatu- eta idatzita.

AEBetan bezala, arrazakeria sistematiko-koa dela adierazi dute munduko beste ha- maika tokitan. Floyd hil zuen poliziaren jarrera berean, eta Colin Kapernick futbol amerikarrek jokalaria egiten zuen bezala, belauna lurrean jarrita bildu da jendetza mundu osoko plazetan. "Justizia Adama eta Georgentzat" aldarrikatu dute Parisen, 2016an poliziaren eskuetan itota hil zen beste gazte beltz bat gogoan.

Gurean, Baionan, Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean deitu dituzte mobilizazioak. Hori- eta hainbatetan, 2016an Iruñean Poliziaren komisarian zela hil zen Elhadji Ndiaye izan dute gogoan. Australian aborigenen eskubideen aldeko aldarriak batu zaizkie protestei, eta ohi- koa duten hakaz (aborigenen errituala) agurtu dituzte protestak. Milioika lagun batu dira poliziak hildako eta gizarteak baztertutako izenak ahoskatzen.

Hiru aste pasatu dira lehen protes- tetatik, "time for a change" aldaketara- ko ordua dela aldarrikatzen. Protesten etorkizuna ez dago argi, ahots ezkorre- nek diote hasi ziren bezala amaituko di- rela, ezer ez dela aldatuko. Baikorrenen- tzat, inoizko mugimendurik handienak izaten ari dira, jendearen haserre biza- ren isla zuzen.

Izan ere, George Floyd beste biktima bat baino ez da izan, polizia gehiegike- riaren zerrenda luzerako. Baina sarri gertatzen den bezala, geroko xanpain isuriari atea zabaltu dion kortxo- a izan da, eta ikusi beharko da isuria noiz bu- katuko den. ●

EGOITZETAKO LANGILEAK,

BIZILAGUNAK ETA SENIDEAK PANDEMIAN

Lehen hari batetik zintzilik, orain egurtuta

Hedabideetako lehen lerroetatik erori dira. Hildakoak eta kutsatutakoak zenbatzen zituzten bitartean izaturik egon ginen zahar egoitzei begira. Olatu beldurgarriena igaro da eta badirudi urak bere onera etorri direla. Egoiliarren senideek eta egoitzetako langileek ez diote halakorik. Minez gainezka duten barrua husteko premia dute eta ausart seinalatzen dituzte pandemiaren kudeaketa kaskarraren erantzuleak: Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiak.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  DANI BLANCO

Madalen Ibañez, Amaia Alvarez, Iraide Urriz, Guillermo Perea, Usue Pastor. Zahar egoitzetako langileak eta erabiltzaileen senideak dira. Artikulu honen egileak interneten argitaratu ditu haiei egindako elkarrizketak (www.argia.eus/blogak/onintza-irureta/). Kazetariak alfer-alferriki prestatu zituen telefono bidezko elkarrizketetarako galderak. Solaskideek bazekiten zer kontatu nahi zuten. Gehienek azpimarratu dute haien helduleku bakarra direla hedabideak, hedabide batzuk. Kritika zorrotzak zituzten hiru foru aldundientzat, eta egoitzetan negozioa usaindu duten funts putreak jomugan jarri nahi izan dituzte. Pribatizazio prozesua salatzeaz gain, bizitzako azken urteetan dauden hauskortasunera tiraka eraman gaituzte, gizartea interpelatu dute. Maite dituztenen bizitza aldarrikatzeaz nekatuta daudela ez dute ezkutatu, baina zaintza duina eta zerbitzu publikoak eskatzen ausart jarraitu nahi dute, nahiz eta senide batzuek haien maiteak galdu dituzten jada.

LEHERTUTA BAI, BAINA AMORE EMATEKO PREST EZ

Madalen Ibañezek ama dauka Donostiako Berra egoitzan. Birusak senideak tunel ilunean irentsi dituela dio: “Ez genekien zer egin, sufritu, besterik ez, eta egoitzatik telefonoz esaten zigutena sinetsi. Nire amaren egoitzan 140 ziren eta 26 hil dira. 38 langile kutsatu dira. Ez dakit nola deskribatu egoera, egunero nire amaren heriotza bizi nuen. Kutsatuak zeuden egoitzetako senideak inpotentziaz beteta sufritzen ari ginen eta ‘garbi’ zeuden egoitzetako senideak gaitza noiz azalduko beldurrez bizi ziren”. Sutea dator kio burura. Hura itzaltzen lagundu nahi, baina ez jakin nola.

Zahar etxeetan gertatzen ari dena historia oso triste da dela dio. Iluntasunean argia bilatu nahi du eta Gipuzkoako Senideak elkartearen bidez ahal duena egingo duela azpimarratu du: “Gaurkoengatik, guregatik eta etorriko direnengatik, zeren inor ez da autonomo bizitza osoan. Denok behar dugu tokia, denok dugu errespetatuak izateko eskubidea”.

Usue Pastor Barakaldoko Vitalitas Santa Teresa zahar egoitzako langilea da. Ibañezi gertatu bezala, negarrari eutsi ezinik kontatu du egoitzetako egoera: “Optimista izan nahi dut eta bihotz-bihotzean espero dut osasun krisi honek balioko duela zerbaitetarako. Egoiliarrek laguntza behar dute, erakunde publikoek ezin dute bestaldera begiratu. Langileok hustuta gaude eta ezertarako ahalmenik gabe sentitzen gara”.

Guillermo Perea Babestu Araba senideen elkarteko kidea da. Hasieran, hildakoen senideek salaketak jartzearen bideari heltzea pentsatu zuten, baina laster konturatu ziren salaketetarako





indarririk ez zutela: “Jendeak ez du dolua egiteko aukerarik izan. Txikituta daude”.

Iraide Urrizek ama galdu du pandemia betean. Babestu Bizkaia elkarteko kidea da eta hiru hitzetan laburtu zigun egoera ama oraindik bizi zuela: ezintasuna, amorrua eta egoitzan sartu ezina.

ERRUDUN ARGIAK: FORU ALDUNDIAK

Malkoak sikatu eta giharrak tenkatzen dituztela nabari dugu, pandemian agerian gelditu den sektorearen egoera kaskarra astintzen hasten direnean. Senideek eta langileek harreman gertuenekoa egoitzako zuzendariarekin izaten dute, eta irudi

luke kargu hori gurutziltzatua luketela kudeaketa txarraz kexatzeko. Ez ordea, ederki dakite jomuga nagusia ez dela egoitza pribatuko zuzendaria, ezta errentagarritasuna helburu duen enpresa pribatua bera ere. Elkarriketatu ditugun langile eta senide guztiek dagozkien herrialdeetako foru aldundiak aipatu dituzte.

Amalia Alvarez Babestu Bizkaiaiko kidea da eta 96 urteko ama bi hilabetez bakartuta eduki izanak ernegatu du eta grazia gutxi egin dio enpresa eta foru aldundia elkarri pilota pasatzen ikustek. Informazio gutxi eskaini eta osasun krisian ardurarik hartu ez duen erakunde publikotzat du aldundia.

Usue Pastorrentzat diputazioa eta enpresa pribatuak eskutik helduta doazen lagunak dira. Lehenengoak ‘zama’ bestearengan utzi du eta bigarrenak errentagarritasuna atera dio. Funts putre deitzen die enpresa pribatuei, krudelak, kanibalak, direla dio. Foru Aldundiak berriz, enpresa pribatu horiei urtez urte obligazio gutxiago ezartzen diela salatu du.

Guillermo Pereak ere Pastorren mezua dakar. Badaki zergatik erakunde publikoek, Osakidetza tarteko, ez duten esku hartu, pandemia betean egoitza pribatuen kudeaketa ez denean onargarria izan: lagunak kudeatzen dituztelako.

Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko duen kritika eleganteago hasi du Ibañezek: “Entzuten gaituzte, jatorrak dira, baina ez dugu ezertan aurreratzen. Erantzunak aurkitzeko gaitasun falta onartu eta barkamena eskatu beharrean, Diputazioak gauza bakarra egiten du: egiten duen lan onagatik bere burua zoriondu. Esaten digute beti protestan ari garela, alegia, negatiboak garela eta ez dugula kontuan hartzen Diputazioa egiten ari den ahalegina”. Donostiarrak, solaskide gehienek bezala, funts putreak deitzen die egoitzetan negozioa egiten ari diren enpresa pribatuei. Pandemian desagertuta egon direla dio. Haien dinamika pixoihaletan nola aurreratu pentsatzea da.

Iraide Urrizek osasun krisiko zuloak honela laburbildu ditu: informazio gabezia; foru aldundiak egoeraren kontrolik eta jarraipenik ez egitea; egoitza bakoitza bere modura ibiltzea; eta langile gabezia.

Senide guztiek langileen ahalegina goraipatu dute, pandemian egin duten lana eta egoera makurra baino lehen ere egunero egiten zuten esfortzua. Alvarezek hala dio: “Bakartu zituztenez pentsatu nuen, ‘langile hauek nola demontre moldatuko dira gelaz gela artatzeko? Lehen ezinean eta orain nola?’. Ez daukat langileen aurka ezer esateko”. Ibañezek ez dauka oparitzeko. Gogoraz du Gipuzkoako langileak ia 150

eguneko greban zeudela pandemia hasi zenean. Iritsi ezinik ibiltzen direla eta lan baldintza kaskarrak dituztela salatu du. Birus garaiaz hala dio: “Greba eten eta inolako babesik gabe, larru bizirik, ekin zioten lanari. Gurean 38 behintzat kutsatu ziren. Ordezkoek ez dakit nondik atera zuten adorea sute hartan sartzeko”.

ZAHARRAK AXOLA AL ZAIKIGU?

Txomin Lasa Gipuzkoako egoitzetako ELAko arduraduna da. Berak argi du zahar egoitzetan dauden pertsonen bizitzek, bizimoduak eta etorkizunak ez dutela gainerako jendartearenak bezain-besteako balioa: “Tamalez, instituzioek eta enpresek onartzen dute horrelako egoera batean hainbat hildako egon daitezkeela egoitza batean eta hori onartzea oso larria da”.

Eta gizarteak berak baloratzen al ditu? Egunik latzenetan, hedabideetan eta jendean ahoetan heriotza kopuruak izan ditugu. Hildakoak kontatzeaz harago egin ote dugu? Txaloak osasungintzako

langileentzat eta lapiko-jotzeak umeen eskubideak defendatzeko. Egoiliarren bizitza duinen alde ez da inor balkoira atera.

Ibañezek anfiteatroko bigarren ilaran ikusi ditu egunotan: “Sozialki onartzen da, azken finean bizitzaren bukaeran dagoen jendea dela, eta ez dut esango horrela ez denik. Otsailean bost bat hiletetara joan nintzen, egoitzakoak denak, ‘hil behar zuen’ jendea. Haiek ordea, senideari eskua emanda eta goxo hil ziren. Orain ilarako azkenak izan dira. Agian ez dira errentagarriak, baina

sozialki aurre egin behar diogu edo bestela honek erregimen nazia dirudi”.

Pereak pena du, hedabideek hildakoen zenbaki hotzak eskainita, egoitzengan konfiantza gal daitezkeelako: “Batzuek egoitzara joatea bere kabuz erabaki dute eta beste batzuen kasuan senideek ezin dituzte zaindu. Kontua da merezi duten tratua ematea, eta ez, esan den bezala, ondorioztatzea hil direla zaharrak zirelako. Krudela da jarrera hori”.

“
**Sozialki onartzen da,
azken finean bizitzaren
bukaeran dagoen jendea dela.
Orain ilarako azkenak izan dira.
Agian ez dira errentagarriak,
baina sozialki aurre egin behar
diogu edo bestela honek
erregimen nazia dirudi”**

MADALEN IBAÑEZ
EGOILIAR BATEN SENIDEA

ESANDAKOA SINETSI BEHARRA

EAEko hiru lurraldeetan aurrena izan zen Bizkaiko Foru Aldundia senideen bisitak baimentzen. Astean behin egoitzara joateko aukera izango zuten. Gipuzkoako eta Arabako foru aldundiek ere baimena eman dute. Gure solaskide batek baino gehiagok aipatu du, asteak igaro dituztela esandakoa sinetsi beste erremediorik ez zutela. Ezin sartu egoitzan, ezin senidea norbere begiz ikusi, telefono bidezko harreman hala moduzkoa izan da egoeraz jabetzeko aukera bakarra. Ezin jakin zenbat hildako zeuden egoitzan, ezta zenbat kutsatu ere. Ikertzaile lanetan aritu behar izan dute informazioa biltzeko. Senide arteko whatsapp taldeak oso garrantzitsuak izan dira egoitzako berri elkarri pasatzeko, eta beste iturri sendoa langileak izan dira. Haiek ordea, konfidentzialsun klausula dute eta tentuz hitz egin behar dute. Senideek barrukoaz jakin nahi, baina marra gaindituz gero langileen lanpostuak arriskuan jar zitezkeen.

Ibañezek adibide baten bitartez kon-



DANI BLANCO



tatu du zer izan den egoitzara sartu ezinda egotea eta itsuan sinetsi beharra:

“Hildakoekin kexak izan dira, zeren adibidez gertatu da gaur esatea zure senidea oso ondo dagoela, sukar pixka bat baino ez daukala, eta hurrengo egunean deitu dizute esateko hil dela. Zuzendariak esan zidan hunkituta zeudela, zeren egun batean ondo zeudenak 24 orduan hiltzitezkeen. Kanpotik sinetsiko dugu? Iloba batzuek esan zieten langileei bideo-deian osaba zurbil ikusi zutela eta erantzun zieten, ezetz, ondo zegoela, siestatik jaiki berria zela. Hurrengo egunean ospitaleratu zuten. Iloben kexagatik eraman zuten azkar ospitalera? Ez dakit. Ez zeukan birusik, geldirik zegoelako zauriak zeuzkan. Geldirik dauden pertsoneri ohean buelta ematen dietela, ohez aldatzen dituztela esaten dute. Egia da? Egiten dute? Ez dakit”.

ETA ERABILTZAILEAK NOLA DAUDE?

Lehendik nekatuta zeuden senideak eta langileak porru eginda utzi ditu birusak. Hala ere, ez dira ondorioak pairatzen ari diren bakarrak. Egoiliarrek isolatuta, bisitarik gabe eta egoitzak hartutako neurri zorrotzak onartu beharrean izan dira. Errenteriako Sanmarkosene egoitzako Toñi López erizainarekin eta Irene

Molano psikologoarekin hitz egin dugu. Ez dute positiborik izan, eta ondorioz, epe motzean isolatu dituzten erabiltzaile bakanak baino ez dituzte izan, kutsatuta ez zeudela ziurtatu arte. Dena dela, egoitza horretan ere, egoera bereziak eragin du. Hitz gutxi batzuetan egoiliarrek hiru hilabete hauetan sentitu dutena deskribatzeko eskatu diegu: beldurra; zer gertatzen ari den ezin ulertu; batzuk triste daude; eta beste batzuk nostalgia jot, familia gogoan.

Kognitiboki ondo ez dagoenak beherra egiten du halako egoera berezien ondorioz. Orientazioa galtzen dute eta gaitasun orokorrak azkarrago galtzen dituzte. Dementia duten askok ez dituzte haien senideak ezagutzen, eta aldiz, ahotsa ezagun egiten zaie. Bideo-konferentzietan eta bisitetan horixe gertatu zaie, mugikorrek pantailan eta bisitako maskara-jendearen atzean ez

dute semea edo alaba ezagutu, baina ahotsa bai. Gure

solaskideek beste gauza baten falta sumatu dute: elkar ukitzea.

Buruz ondo ez dagoenarentzat pizgarri da ukitzea eta orain ezin da halakorik egin, ezta bisitetan ere.

Buruz ondo daudenarentzat ondorioak bestelakoak dira. Ohiturak aldatzea nabaritu dute.

Orientatzeko arazoak izan dituzte, urduri daude, estutasuna sentitzen dute, galderak egiten dituzte logelaz eta jangelaz aldatzen badituzte, haien senideak nola dauden kezkatuta daude. Gaitzarekiko beldurra ere badute. Sukarra duten jakiteko termometroa jarri baino lehen, “Sukarra daukat! Sukarra daukat!, esaten dute”. Egundak batzuetan telebista itzaltzea erabaki zuten, etengabe egoitzetako hildakoen albisteak ematen ari zirelako. Bisitarik gabeko hilabeteetan, langileak izan dituzte helduleku, baina haiekiko harremana ere pixka bat desberdina da. Maskara atzean ezkutatuta ikusten dituzte: “Noiz kenduko duzue muturrekoa?”. Eta muxuak, langileen eta egoiliarren artean ere ukitzea oso garrantzitsua baita. Orain halakorik ez. Egoiliar batzuek kalera noiz atera behar duten galdetzen dute. Langileei erraza egin zitzaizen esatea, denok itxialdian geundela, haiek pribilegiatuak zirela, egoitzako hiru te-

Amaia Alvarez Babestu Bizkaiaiko kidea da eta 96 urteko ama bi hilabetez bakartuta eduki izanak ernegatu du eta grazia gutxi egin dio enpresa eta foru aldundia elkarri pilota pasatzen ikusteak



rrazatara ateratzeko aukera zutelako. Orain, ezin halakorik esan, denak kailean, salbu eta egoiliarrek.

Ez mugitzeak narriadura fisikoa dakar. Erizainak eta psikologoak diote ez dugula hainbeste jenderengan eragin duen halako bakartzerik ezagutu egoitzetan, baina erabiltzaileek prozesu infekziosoetan izandako ondorioek adibide moduan balio dutela narriadura fisikoa antzemateko. Giharra galtzen dute, mugitzeko arazo gehiago dituzte eta oso ohikoa da ibiltzen hasitakoan erortzea.

Errenteriako Sanmarkosene egoitzan ondorioek ez lukete hain larriak izan behar, ez behintzat bakartze masiboak eta luzeak egin dituztenekin alderatuta. Hala ere, langileen artean ondoko pentsakizuna hitzetara ekarri izan dute: “Gurean COVID-19ak ez ditu hil erabiltzaileak, baina ea birusa saihesteko hartutako neurriek ez duten halakorik lortzen”. ●

HERRI BOZAK 2020: BIGARREN ITZULIA

Gehiengoan kokatzeko eta auzapezgoak irabazteko aukerak dituzte abertzaleek

Ekainaren 28an iraganen da Ipar Euskal Herriko udal hauteskundeak bigarren itzulia, koronabirusaren izurriteak bi bozketen artean hiru hilabeteko parentesia behartu ondoren. Guztira hemezortzi herrietako hautesleek dute bozkatu beharko, beste 140 herritako auzapezak eta herriko kontseiluak martxoaren 15eko hauteskundeetan argitu zirelako. Guztiak ezin aipa, aldaketa haizeak ufatu dezakeen herriei begira jarri da Argia. Bozketa berean, Euskal Hirigune Elkargoko ordezkariarentzat bozkatuko dute hautesleek.

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Ipar Euskal Herriko hemezortzi herrietako boz-emaileek itzuli beharko dute bozkatza ekainaren 28an, hots, martxoaren 15eko lehen itzulian herriko kontseiluaren osaketa argitu ez zen herrietakoek. Bozketa sistemari segi, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako 140 herrietan lortu zuen hautagai batek botoen %50 baino gehiago biltzen eta zuzenki martxoaren 15ean udaletxera sartzen. Lehen bozketa horretan abertzaleez ere osatutako ezkerreko hautagaiek lortu garaipenaren zerrrenda luzatzeko aukera handiak dira bigarren itzuli honetan: alde handiarekin lehen indarra atera zirelako lehen bozketan (Ziburu, Urruña) edo beste zerrrenda batekin osatu aliantzak dakarren botoen batuketari esker (Hendaia, Senpere, Miarritze).

Oroitu gara nola koronabirusaren izurriteak agenda politikoa erabat nahaspilatu zuen, hiru hilabeteko parentesia behartuz bi bozketaldien artean eta beraz, kanpainaren baitan. Azkenean,

maiatzaren 22an bigarren itzuliaren datuen berri eman zuen Frantziako Gobernua, ofizialki behintzat geldituak ziren hautagaitzen arteko negoziaketei ateak zabalduz. Ekainaren 2a zuten zerrrendak prefekturan erregistratzeko azken epea –%10aren ozka gainditu duten zerrrendek bigarren itzulirako txartela zuten, baita %5az gora gelditu zirenek ere, horiek lotzen ahal zirelako lehian zegoen beste bati–. Negoziaketa beroak egon dira, aliantza osatu eta garaipena errazteko esperantzarekin. Programaz gain, herriko etxerako aulkien banaketa eta Euskal Hirigune Elkargorako ordezkariak ukan dituzte negoziatzeko gai nagusi. Hain zuzen, herriko kontseiluaren osaketa bozkatzeaz gain, Ipar Euskal Herriko 158 herriak batzen dituen instituziorako ordezkariak ere izendatzen direlako bozketa horretan. Negoziaketa guztiek ez dute ordea fruiturik ekarri eta ezkerreari zein abertzaleen esparruari dagokionez, hiru porrota aipatu ditzakegu: Baiona, Maule eta Itsasu.

BAIONA ETA MIARRITZERI SO

Lapurdiko hiriburuari dagokionez, izugarri tinko izan zen afera 2014an: 24 bozen aldearekin gailendu zitzaion Jean-Rene Etxegararen eskuineko zerrrenda Henri Etxeto sozialistari. Aurtengoan ere lehia gogorra aurreikusten da. Nekez erran daiteke segurtasunez *“lehen itzulia ikusiz edota bigarren itzuliko panoraman kokatuz... X-k irabaziko du”*. Etxegaraik (%40,33 lehen itzulian) parean du Etxeto (%29,76 lehen itzulian), lehen itzulian %11,20 egindako Mathieu Berge ezkertiarra juntatu zaio. Matematika berdintsu dira eta beste behin ere, abertzaleen bozka izanen da erabakigarria Lapurdiko hiriburuan.

Abertzaleez ere osatutako *Baiona Berde eta Solidarioa* bigarren itzultik erretiratu da, doi-doiatarik Etxetori ez batzeko hautua eginik –aliantzaren alde ziren 54, kontra 56 eta zuri kokatu ziren sei–. Duela sei urte ez bezala, bigarren itzulian ez mantentzeko hautua egin dute –horrek dakar *de facto* ez



MIARRITZE UHAIN BERRIA

dutela hautetsirik ukanen herriko kontseiluan- eta hori horrela, abertzaleen boto bakoitzak sekulako pisua ukanen du ekainaren 28an. Batzuek Etxetoren alde egingen dute, ezkerre garaile ateratzeko, baina guztiek ez: Batzuek zuri bozkatuko dute, Etxeto anti-euskalduna eta jakobinoa ez dutelako nahi baina eskuineko zerrendarentzat bozkatzea nekeegi zaielako eta beste batzuek Etxegarai bozkatuko dute, azken honek bake prozesuaren, euskal presoekin euskal elkargoaren alde egiten duenaz kontziente, baita bai ala bai Etxetori bidea mozteko ere, azken hau argiki kokatzen delako aldarri horien aurka. Nola ez, martxoaren 15ean izandako abstentzio handia ere da misterioa -Baionako hautesleen %61ak ez zuen bozkatu- eta hortik atera daiteke bata ala bestearen aldeko bultzada.

Guiztiak Baionarantz begira direla, baliatzen al daketa ondoko hirian gertatzea: Miarritzen. Hain zuzen, aliantza osatu dute abertzaleez ere osaturiko *Euskal Herria Berde eta Solidarioa* (%12,34 lehen itzulian) eta Guillaume Barucq mediku ekologistaren *Miarritze Uhain Berria* (%16,22 lehen itzulian) zerrendaren artean. Hori horrela, batuketa matematikoei fidatuz, botoen %31,47 eskuraturik lehen indar ateratako Maider

Arrostegi eskuindarrak nahiko hurbil kausitzen da Barucqen hautagaitza. Gainera, lehen itzuliko zazpi zerrendetarik lau doaz bigarrenera, zentroko eta eskuineko botoak zatituz. Arrostegi bakarrik doa, inolako aliantzarik gabe, *ez dut zuen beharrik garaile ateratzeko* postura ez hain estrategikoa hartuz. Nathalie Motsch zentrista ere mantentzen da, lehen bozketan %14,24 eginik eta azkenik, Michel Veunac auzapez zentrista erretiratu bada ere -sekulako putarra bildurik martxoaren 15ean, bosgarren kokatuz, botoen %12,22 bakarrik bilduz-, bere zerrendakoak Jean-Benoit Saint-Cricqen *Miarritze Elkarrekin* zerrendari lotu zaizkio (%10,59 lehen itzulian). Abstentzioa %60koa izan zen eta bistan da, hor dugu berriz ere misterio handia; bigarren itzulirako aurreikuspenak zangopilatu ditzake, ez delako lehen itzuliko botoen batuketa matematikoari mugatuko ekainaren 28koa. BAM Baiona-Angelu-Miarritze hirigune potoloari dagokionez, Angelu da beraz ez-jakintasunaz eta aldaketaz mehatxatua ez den bakarra. Hala nola, lehen itzultik mantendu zuen auzapezaren aulkia Claude Olive zentro-eskuinak, botoen %67,22 eskuraturik.

Mauleri dagokionez, 2014an bezala aurten ere ez da aliantzarik posible izan

ezkerreko zerrenden artean. Botoen %37,6 bildurik lehen indarra ateratako Louis Labadot komunista jakobinoak ez ditu onartu aliantzarako Beñat Elkegarai abertzaleak (botoen %28,9) jartzen zizkion baldintzak (tartean, Labadotek sostengatzen ez duen Euskal Hirigune Elkargorako aulkia Elkegaraien zerrendari bideratzea). Hori horrela ezkerretik bi hautagai izanen dira Mixel Etxebest auzapez zentro-eskuindarrari aulkia hartzeko lehian. Azken hau bigarren kokatzen da %33,45 eginik eta duela sei urtekoa baino zailagoa du aldi honetako: ez da lehen atera eta 2014koari alderatuz, 250 bat boto galdu ditu. Kostaldean baino parte hartze handiagoa izan arren, abstentzioa aurrekoetan baino handiagoa izan da Zuberoako hiriburuaren ere, zortzi puntuz emendatuz. Hautesle horiek alda dezakete tendentzia baita ere hirugarren kokatzen den Elkegaraien zerrendaren hautesle batzuek Etxebest bozkatzen badute, jakobinoari bidea mozteko. Ekainaren 28an hurbiletik segitzeko herrien artean ukanen dugu Zuberoako hiriburua ere.

Hurbiletik jarraitzeko artean izanen dira Urruña eta Ziburu ere. Zerrenda-buru abertzalea duten ezkerreko hautagaitza zabalak lehen kokatu ziren bi herri horietan.

URRUÑA ETA ZIBURUN ALDAKETA?

Auzapezaren aulkia eskuragarri dute Eneko Aldana ziburutar gazteak (%44,6 lehen itzulian) eta Filipe Aramendi urruñarrak (%40,8 lehen itzulian). Hain zuzen, parean, orain arte bezala hauteskundeak irabazteko beharrezkoa zuen aliantza osatzen ez du lortu eskuinak. Bidea nahiko erraza dute beraz hautagai abertzaleek, beti ere abstentzio tasa handiaren baitan gordetzen direnek ez badute egoera iraultzen.

Baionan Etxegarai eta Etxetoren arteko lehia tinkoa da, beste behin erabakigarria izanen da abertzaleen botoa

Hori horrela, abertzaleek gobernatu-riko udal potoloen zerrenda luza liteke ekainaren 28an –Baigorri Jean-Mixel Coscaratek eta Uztaritzen Bruno Carre- rek eskuratu zuten auzapezgoa 2014an eta ezustekorik gertatu ezean, auzapez segituko dute biek: lehen itzulian %45,23 lorturik, alde handiarekin lehen kokatu zen Carrere martxoaren 15ean eta bigarren itzulirako Jean-Claude Saint Jean (%22,42 lehen itzulian) eta Bruno Cendres (%19,69 lehen itzulian) ukanen ditu parean, iraganean auzapez izandako Dominique Lesbatsek (%12,64 lehen itzulian) sostengua Cendresei erakutsi diolarik. Baigorri dagokionez, Coscaratena martxoaren 15ean argitu zen, lehia- kiderik gabe aurkezturik, auzapezaren aulkia atxiki zuen.

Auzapezgoa lortu gabe ere, akor- dio batera iritsirik, aliantza osatu eta gehiengoan kokatzeko aukerak dituzte hainbat udaletan abertzaleez osaturi- ko zerrendek. Demagun, Hendaian eta Senperen. 2014an lehen aldikotz osa- tu aliantza errepikatu dute aurten ere Hendaia abertzaleek: botoen %41,08 eskuratuz lehen ateratako Kotte Eszena- rro auzapez sozialistari juntatu zaio Lae- titia Navarron buru duen *Hendaia Bil- tzen* zerrenda ezkertiarra (%18,4 lehen itzulian). Pascal Destruhaiten zerrenda zabala ukanen dute lehiakide (%32,71

BIGARREN ITZULIA DUTEN 18 HERRIAK

ALDUDE
AMENDUZE
AZKAIN
BAIONA
BIDAXUNE
BILDOZE
BOKALE
MIARRITZE
HENDAIA
ITSASU
LANDIBARRE
LARRAÑE
MAULE
SENPERE
URKETA
URRUÑA
UZTARITZE
ZIBURU

lehen itzulian). Matematikoki auzapez izaten segitu behar luke Eszenarro, gai- nera, azken geldituriko Laurent Tariol komunistaren sostengua ere lortu due- lako, herriko etxerako bi aulkiren truke.

Senperen lorturiko akordioa da haa- tik berritasunen artean. 2014ko sorpre- sa handien artean kokatu zen Senpe- rekoa: inork espero ez zuenean, lehen itzuliko emaitzak hankaz-gora jarri eta garaile atera zen Pierre-Marie Nous- baum eskuindarra. Ordura arte auzapez izandako Christine Bessonarten segida hartzen zuen Dominique Idiarlek aurten errekuera dezake duela sei urte eskue- tarik eskapaturiko auzapezgoa, zerren- da abertzalearekin adostu akordioak bi- dea errazten diolako. Martxoaren 15ean Idiarlek egindako %41,27ri abertzaleek lortu %16,70 gehiturik, Nousbaumen lehen itzuliko %42,01a gailenduko luke aliantzak.

Akordiorik ez bada lortu ere, kontuz Itsasuko hautagai abertzaleari! Lehen

itzulian bezala ukanen dituzte hiru hautu bozkatzaileek: Jean-Paul Iturbu- rua orain arteko auzapezaren axuanta (%37,97 lehen itzulian), Mikel Hiriba- rren laborari eta sindikalista abertzalea (%34,36) eta etiketarik gabeko Louis Ustarroz (%27,66). 2014koari konpara- turik, emaitza askoz hobeagoak egin di- tuzte abertzaleek (14 puntu gehiago) eta baliteke bigarren itzulian are hobeagoak egitea, Ustarrozen batzuek boto estra- tegiko gisa Hiribarrenen alde egiten ba- dute. Akordioa lortu izanaren ustea he- datu bazen ere, doi-doiatarik huts egin zuten Hiribarren eta Ustarrozen arteko aliantza –nagusiki euskara politika eta aulki banaketari buruz ez dira ados ja- rri-. Hurbiletik segitzen du Hiribarrenek Iturburua eta baliteke bigarren itzulian aurreratzea.

LEHEN ITZULITIK, 140 AUZAPEZ

Martxoaren 15eko lehen itzulian argitu zen Ipar Euskal Herriko beste 140 he- rriko kontseiluen osaketa. Aldaketak eta berritasunaren aire freskoak inarrosi zituen hainbat herri. Aipagarrien artean, Donapaleu: abertzaleez osaturiko zerrenda irabazle atera zen, politikari eta enpresari ezaguna den Barthelemy Aguerre Amikuzeko jaunttari sekulako zaflakoa bideratuz. Charles Massondo da auzapez berria, aspaldian erroturiko es- kuina Amikuzeko hiriburutik haizaturik. Gisa berean, Biriatuan ere aulkia hartu zion 1989tik alkate izandako Mixel Hi- riart eskuindarrari Solange Demarcq-E- guiguren ezkertiarrak. Hazparnen ere ezustekoa gertatu zen, Isabelle Pargadek zuzendu *Hazparne Bihotzean* zerrendak botoen %54,56 bildu eta aulkia hartuz Beñat Intxauspe zentristari.

Denetan ez da aldaketarik gertatu eta auzapez berarekin segitzen dute besteak beste, Donibane Lohizunen, Ezpeletan, Kanbon, Saran, Mugerren, Hiriburun, Basusarrin, baita erran bezala Baigorri zein Angelun ere. Oraingoan, 140 auzapezetatik hogeita bederatzi emakumez- koak dira. Duela sei urte baino emaku- me gehiago izanen dira beraz, 2014an hemeretzi emakumek zutelako auzapez aulkia irabazi. Hala eta guztiz ere, pare- kidetasuna oraindik urrun gelditzen da Ipar Euskal Herriko auzapezgoan baita ondorioz Euskal Hirigune Elkargoan ere, orain arteko tendentziak segitzen duela- ko: nahiz eta ez behartuak izan, auzape- zek hartu ohi dute instituzio honetako aulkia ere. ●

ESKOLARIK GABEKO UDABERRIA

Haurrak euskaraz aritzeko mintzakide bila dabilta

Ikastetxeak itxita eta lagunekin egoteko aukerak mugatuta, familia erdaldunetako haur ugariri asko murriztu zaie euskaraz aritzeko aukera, eta beraiekin hitz egiteko mintzapraktika sare sendoa osatu dute, tartean, Bilbon eta Donostian. Egitasmoaren arrakasta ikusita denboran luzatzea pentsatzen ari dira.

 MALEN ALDALUR AZPILLAGA

Euskara ere alarma egoeran dago martxoaren 13tik eta egitasmo hauen bitartez, euskara haurren egunerokora eramaten ari dira. Sare hauek oso lan interesgarria egiten ari direla uste du Jaime Altuna gizarte antropologoak, “ez bakarrik euskaraz praktikatzeko aukera emateagatik, baita erakusten dutelako euskarak komunitate horietan duen garrantzia ere”. Harrera ona izan dute, eta haurrek aurrerapauso nabariak egin dituzte.

Hamazazpi auzotako eta inguruko herrietako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleekin hitz egiten dute Bilbo-ko boluntarioek, horrela, 500 etxetara euskara iristea ahalbidetu dute. Auzo bakoitzak bere koordinatzailea dauka eta astean hiru aldiz egiten dituzte boluntarioek deiak, ordua eta modua fami-
liekin adostuta.

Mintzapraktikak egiten eta egitasmoa koordinatzen ari da Koldo Lopez. Deustuko taldean dago eta 6 urteko neskato batekin aritzen da berriketan. Hasierako asmoa astean hamabost minutuko hiru dei egitea zen, baina beti luzatzen dira: “Aurreko batean, esaterako, Argentinara bidaiatzen duen platano magiko baten istorioa kontatzen hamabost minutuz aritu zen hizketan gelditu gabe”. Eta ez da bakarra, Ibane Muniategirentzat, terapia moduko bat da, Enpresen administrazio eta zuzendaritza ikasketak ditu eta lan giro formal batetik ihes egin eta tarte batez haur hauekin hitz egiteak mesede handia egiten diola aitortu du: “Barre pilo bat egiten dut”.

Muniategi ere Deustuko mintzapraktika sarean dabil eta 6-7 urteko bi ume-
rekin hitz egiten du, batekin dei bidez eta bestearekin Whatsappeko bideo dei

bidez: “Dei bidez egiten dudanean haurra behartuta dago deskribapen gehiago egitera eta oso aberasgarria da”. Bideo deiak aldiz, beste aukera batzuk eskaintzen dizkiola dio: “Dei bakoitzerako kanta bat sortzen dit haurrak, eta ukelelez lagunduta abesten dit”.

Lopezek eta Muniategik Deustun egiten duten gisara, Sheila Melcon San Frantzisko auzoan ari da mintzapraktika egitasmoan parte hartzen, koordinatzaile moduan. Beste auzo batzuekin alderatuta zailtasun gehiago izan dituztela dio: “Internetez formulario bat ahalbidetu zen mintzapraktikarako izena emateko, baina gure auzoan horrek hainbat zailtasun sortu zuen; batzuek ez dute ordenagailurik edo internet konexiorik etxean, eta guraso batzuek ez dute hizkuntza menperatzen”. Hori dela eta, guraso elkarten bidez egin dute familiekin



DANI BLANCO

KATTALIN MUTUBERRIA IRAZOKI boluntarioa Donostiako egitasmoan ari da parte hartzen. Argazkian **IZARO MARTINEZ CERRATO**rekin hitz eta pitz.

harremana: “Beraiek bidaltzen dizkidate familiak eta nik auzogilea (boluntarioa) esleitzen diet”. 28 familia eta 38 auzogile daude une honetan.

Melconek 9 urteko haur batekin egiten ditu deiak: “Batzuetan nekatuta egoten da pantaila bidezko harremanerako eta kalera joan nahi izaten du, beste batzuetan oso gustura aritzen gara”. Hasierako harremana erraza izan bazen ere, egunak aurrera joan ahala hizketa gaiak aurkitzea zailtasun bat izan daitekeela ohartu dira. Hori dela eta, Whatsapp talde bat dute eta bertan elkarbanatzen dituzte jolasak: “Nire etxea erakusten diot, eta, bertan, lekuz kanpo dagoen zerbait aurkitu behar du. Demagun, platan bat mikrouhin barruan”. Beraien interesak zeintzuk diren asmatzen ahalagindu dira boluntarioak eta konturatu dira, denek *Fortnite* jokoan jolastu nahi dutela: “Gure artean hitz egin gabe ohartu ginen hiruk deskargatu genuela jolasa beraiekin zertaz hitz egin edukitzeko, orain konturatu gara jolas horri genero ikuspegia txertatzea lan izugarria izan-gu dela”.

ORDU ERDIZ BERRIKETAN

Bi foku nagusi ikusi dizkio Ana Hermidak ekimenari, alde batetik mintzaprak-

tikek boluntarioei eskaintzen diena, baina batez ere, eta bereziki, boluntarioek haurrei eskaintzen dietena: “Niri pertsonalki laneko arazoetatik urruntzeko baliyo izan dit. Konfinamenduan irakasleok lanpetuta ibili gara eta haurrarekin es-


Bilbon, hamazazpi auzotako
eta inguruko herrietako
Lehen eta Bigarren
Hezkuntzako ikasleekin hitz
egiten dute boluntarioek.
500 etxetara iritsi da euskara

kolatik kanpo hitz egitea polita izaten ari da”. Dena den, uste du garrantzitsuena boluntarioek eskaintzeko dutena dela: “Tarte batez euskaraz hitz egitea ez da lan handia boluntarioentzat, baina haurraren sortzen duen onura ikaragarria izan daiteke”.

Paula Paunerok alaba apuntatu zuen egitasmoan. Eskolaren bitartez jakin zuen mintzapraktiken berri: “Ni Gaztelakoa naiz eta nire bikotekidea Galizia-

koa, gure alabak ez du aukerarik etxean euskaraz hitz egiteko eta aukera polita iruditzen zitzaien”, azaldu du. Oso pozik dago egitasmoarekin eta inguruko familia guztiei gomendatu die. Bideo dei bidez hitz egiten dute eta azaldu du lehenengo aldiz alaba 30 minutuz euskaraz hitz egiten entzun zuenean hunkitu egin zela. Askok eskertzen dio boluntarioari haurrarekin partekatzen duen denbora: “Oso ondo konpontzen dira, eta guri ere asko lagundu digu ekimenak”.

Donostian euskaraz mintzapraktikak egiteaz gain, eskolako lanekin laguntzearen beharrari erreparatu diote. Zaintza sarea sortu zuten hainbat beharri aurre egiteko eta tartean, hezkuntza eta hezkuntza beharrak atzeman zituzten: “Alde batetik, konturatu ginen bazeudela ume batzuk etxeko lanak egiteko laguntza beharko zutenak, bereziki, etxean euskara menperatzen ez zuten familietan, eta bestalde, ikusten genuen ume askoren harremana euskararekin eten egingo zela”. Ideia horri tiraka sortu dute mintzapraktika sarea, eta bertako koordinatzailea da Elene Lopetegui. Aurretik ere horretan aritzen diren beste elkarte batzuk daude tartean, esaterako, Bagera edo Ongi Etorri Eskolara elkarteak. Auzoka antolatu dute sarea eta dagoeneko



JOSU CHOCARRO boluntarioa Bilbon aritzen da **MAIALEN NARVÁEZ BALCAZAR**ekin.

30 boluntario daude martxan, baina jende gehiagoren bila ari dira.

Boluntarioetako bat da Kattalin Mutuberria. Egia auzoan dabil mintzapraktikak egiten. Magisteritzako ikaslea da eta pentsatu zuen modu polita zela laguntzeko: “Hiru aste dira 8 urteko haur batekin hitz egiten hasi nintzela, asteen bi ordu inguruz”. Oso gustura dabil, baina pantaila atzetik egin behar izateak nekatzen du: “Ea laster saioak aurrez aurre egiten hasten garen”.

UDAN ZER?

Mutuberriak interes bereziarekin jarraitu du haurren egoera konfinamendu garaian eta kezkatuta dago epe luzera honek sor ditzakeen galerekin. Hala dago Ana Hermina ere, ofizioari eta bokazioari jarraika apuntatuta zen mintzapraktika egitas-

moan. Lehen Hezkuntzako irakaslea da eta bazekien konfinamenduak haurren erabilera linguistikoan zein eragin izan zezakeen, horregatik animatu zen mintzakide izatera: “Udara ostean haurrak eskolara bueltatzen direnean asko nabaritzen da nortzuek hitz egin duten euskaraz eta nortzuek ez, egoera larriagoa izango da hainbeste hilabete eta gero”.

Euskara ikasgelatik ateratzea lortu dute egitasmo hauek, eta hori aurre-rapauso handia dela uste du Altunak: “Euskaraz aritzeko erreferente berriak edukitzea ekar dezake honek”. Bat dator horretan Paunero ere: “Nire alabak orain badu norekin euskaraz hitz egin eta gainera oso harreman polita sortu dute bien artean”.

Altunak ez du uste konpondu ezin den kalterik ekarriko duenik egoera ho-

nek, baldin eta datozen asteetan ondo bideratzen badira egin beharrekoak. Izan ere, azaldu du beste esparru gehienetan hasiak direla krisiari aurre egiteko planak antolatzen eta uste du haurren euskararen sozializazioan ere halako zerbait antolatu beharko litzatekeela: “Zer egin azken asteetan euskara entzuteko edo hitz egiteko aukerarik izan ez dutenekin egoera gehiegi ez luzatzeko? Zer baliabide eskainiko ditugu horretarako?”.

Galdera horiei erantzun nahian ari dira Lopez eta Lopetegi ere. Harrera oso ona izan dute egitasmoek eta eutsi egin nahi diote: “Jendea lanean hasi da berrirori, eta uda garaian prestutasuna ere aldatu daiteke, baina aukerak aztertzen ari gara ahal den neurrian egitasmoari eusteko”. ●

BABESLETZA:



HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako soluzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintotasunaren, talde-lanaren, ariztasunaren eta iraukortasunaren hizkuntzan aritzen gara... eta gainera euskaraz.

“Funtsezkoa ikusezina da begientzat”
Antoine de Saint-Exupéry



Muga eguneroko bizitzari



Hego eta Ipar Euskal Herriaren arteko muga zeinen zatiketa artifiziala den nabarmen ikusi dute Bidasoaldeko bizilagunek, pandemiaren aitzakian muga itxi dutenean. Eguneroko jardunean batetik bestera lasai mugitzen ziren herritarrei bizimodua erdibitu die erabakiak, Irun eta Hendaia artekoa inposaturiko muga administratiboa baino ez dela agerian utziz.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Bidasoan bizi garenontzat, Santiagoko zubia ixtea askatasun handi bat kentzea izan da”, dio Aitziber Zapirain hendaia arrak. Antxeta irratiaren egiten du lan eta irratiaren informazio eremu naturala Behe Bidasoa eskualdea da (Hondarribia, Irun eta Hendaia barnebiltzen dituena); horregatik, “komunikabide bezala zatitu egin gaituztela sentitu dugu”, azaldu digu: “Oso kontzientea izan gara Bidasoa eskualdea bat eta bakar bezala bizi dugula, zatiketarik gabe, egunerokoan makina bat joan-etorri egiten ditugulako eskualdeko herri batetik bestera, Santiagoko zubia gurutzatuz”.

Muga ixteak lanerako guztiz baldintzatu ditu, paper egokiekin ere muga-

ko kontroletan denbora asko eta ilara handiak jasan behar dituztelako, “eta egokitzen zaizun poliziaren arabera ondorioak ezberdinak izan daitezkeelako”. Traba handienak polizia frantziarrak jartzen dituela adierazi du, eta berak Frantziako nortasun agiria duenez ez duela problema berezirik izan, baina Hegoaldeko lankideei paperak puskatu egin dizkietela muturren aurrean, azken bertsioa ez dutela argudiatuz, eta buelta emanarazi dietela. “Ez da batere atsegina halakoak bizi behar izatea behin eta berri”. Mendekutsuz egiten dutela uste du Zapirainek, “Frantziako Gobernuak aspalditik nahi dituelako mugak ireki, baina Espainiakoak itxita mantendu nahi izan ditue-

nez, Frantziak horrela erantzun du. Eta sufritzen dugunak gu gara”.

KONFINAMENDU ERABAT EZBERDINAK

Elkarren ondoan bizi arren, Antxetako lankideek egoerari oso ezberdin egin behar izan diote aurre, Irunen edo Hendaian bizi, konfinamendua guztiz ezberdina izan delako: “Bai kalera ateratzeko, bai lanerako, baita irratiko edukiak sortzeko ere, Irun eta Hondarribiko udalek irizpide batzuk izan dituztelako eta Hendaia beste batzuk”. Ahal izan duten heinean telelana egin duten arren, irratiaren gauza asko ezin dira etxetik egin, eta batetik bestera mugitzeko oztopoak handiak izan dira. “Hendaian dugu estudioa eta Irunen bulego bat, eta nire kasuan Irunera joatea ez da gustukoa izan, batetik mugan pilaturiko ilara eta denboragatik, eta bestetik aurkituriko panorama goibelagatik. Konfinamendua hasi eta Irunera joan nintzen lehen aldian

“
Antxeta irratiaren lan egiten dugunok sentitu dugu komunikabide bezala zatitu egin gaituztela, gure informazio eremu naturala Behe Bidasoa eskualdea delako”

Aitziber Zapirain



"Zubia ixtea askatasun handi bat kentzea izan da", aitortu du Aitziber Zapirainek (ezkerrean). "Bat-batean, mugaren presentzia berriz ere erreal bihurtu da, gauza bortitza izan da", dio Idoia Karrerak.

inpaktatuta geratu nintzen, Hendaian ez dut halako tentsiorik bizi izan, ezta Hegoaldean aipatu izan diren bizilagun salataririk ikusi ere. Hemen eramangarriagoak izan dira baldintzak".

Eskualdeko alkateek muga zabaltzea eskatu izanak berak erakusten du zein punturaino egiten duten batera eta bestera natural bertako bizilagunek. Dela erosketak egiteko, seme-alabak eskolara eramateko, lagunekin elkartzeko, aisialdiaz gozatzeko, senideak bisitatzeko...

FAMILIA, BANANDUTA

"Martxo hasieratik ez ditut gurasoak ikusi", aitortu digu Idoia Karrerak, "ez da batera erraza familia hain hurbil eta fisikoki hain urrun sentitzea". Irunen bizi da bera, eta familiaren zati bat aldiz, Hendaian: gurasoak, lehengusua eta ilobak. "Bat-batean, mugaren presentzia berriz

ere erreal bihurtu da, 70eko hamarkadara itzuli bagina bezala. Poliziaren kontrolak eta gure baitan nolabait ezabatuta genuen muga politikoaren berragerpena gauza bortitza izan da".

Ez duenez zaintza beharrik izan justifikatzeko, ez du muga igaro Karrerak: "Ez dago agiri ofizialik

familia bisitatu ahal izateko, tamalez beste behin harremanei eta zaintzari baino garrantzi handiagoa eman baitzaio lanari. Mugako poliziaren esku geratu omen da senideak ikustera joatea baimentzea, baina gu ez gara saiatu ere egin". Gobernuen burugogorkeriak muga itxita mantentzea mingarria dela dio, "tartean jendearen bizitzak eta harremanak baitaude jokoan".

Bideodeiei eta mezuei esker, komunikazio etengabea izan dute eta opariren batek edo bestek ere gurutatu du

Ez dago agiri ofizialik familia bisitatu ahal izateko, tamalez harremanei eta zaintzari baino garrantzi handiagoa eman baitzaio lanari

Idoia Karrera

muga "mugalari bati esker", baina distantzia mantenduta aurrez aurre egotarik ez dute izan. "Gure seme-alabek ez dute beren aitatzirekin, amatxirekin, lehengusuekin eta Iparraldeko lagunekin egoteko aukerarik izan oraingoz, eta horrek ematen dit pena handiena".

AURRERANTZEAN, ZER?

Koronabirusaren pandemiak alertan jarri du jendartea. Krisiari aurre egiteko politikariak onartzen ari diren neurrietatik, zeintzuk baliatuko dituzte herritarron kontrola areagotzeko, eskubideak murrizteko, askatasunak kate motzean lotzeko? Hego eta Ipar Euskal Herriaren arteko muga zabalduta ere, polizia kontrolek jarraituko dutela iragarri dute, eta mugak indartzeko estrategia izan daiteke. Galtzaile handienak, berriz ere, egoera irregularrean dauden eta bestela ere bidean horma itzelak aurkitzen dituzten migratzaileak lirakeke. "Euren egoerak asko egin dezake okerrera, kontrol zorrotz hauek mantentzen badira", ohartarazi du Aitziber Zapirainek. ●

Churchill arrazista zen



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Bengala (India), 1943. Urte hartako arroz uza ez zen txarra izan, eta elikagai soberakinak zeuden probintzian nahiz Indiako gainerako lurraldeetan. Eta, hala ere, goseteak 2 eta 4 milioi pertsona artean hil zituen britainiar koloniaren probintzian. Britainiar gobernua, Indiako soberakinak berez ondo hornitutako soldaduentzat bideratu zituzten edota Europako biltegieta gorde zituzten, badaezpada. Australiatik gariz beteta zetozen ontziei ere ez zieten utzi Kalkutako portuan sartzen. Winston Churchill (1874-1965) lehen ministroaren ustez Bengalako gosetearen errua indiarrena zen, “untxiak bezala ugaltzeagatik”. “Gorrito ditut indiarrek”, aitortu zuen, “erlijio basatia duten jende basatia dira”.

Lehenago, 1921ean, kolonietako estatu idazkari zela, zera idatzi zuen: “Zibilizatu gabeko tribuen kontra gas pozoitsua erabiltzearen aldekoa naiz guztiz”. Afganistanen, pashtunei esan zien “britainiar arrazaren nagusitasuna aitortu behar” zutela. Kenyan, bertako biztanleak birkokatze politikak zuzendu zituen: besteak beste, 150.000 kenyar kontzentrazio-esparrutan sartu zituzten, lur emankorrenak kolonoen esku uzteko.

Eta irlandarrak ere, nagusiki txuriak izan arren, “zibilizatu gabeko tributatz” izango zituen Churchilllek; 1920an, artean gerra eta aire idazkaria zela, manifestari



EZKERREAN, 1943KO BENGALAKO GOSETEAREN IRUDI BAT. ESKUINEAN, CURCHILLEN ESTATUAN BERRIKI EGINDAKO PINTAKETA.

irlandarrak sakabanatzeko “hegazkinetako metrailadoreak eta bonbak erabiltzea” proposatu zuen.

Berriki, George Floyden hilketaren aurkako Londresko protestaldietan, manifestariek Churchillren estatuari *Black lives matter* leloa zeukan kartela itsatsi zioten gerrian, eta bere izenari “*was a racist*” (arrazista zen) esaldia gehitu. Pintaketa handik ordu gutxira garbitu zuten. Baina ekintzaren kontrako iritzia ez ziren itzali. Godwinen legeak duen indarra erakutsiz, Hitler erabiltzen dute Churchillren defendatzaile itsuek: Hitlerren arerio nagusietakoa izanik, ezin zuen ezer txarrik izan. Stalinek ere ez, orduan? Beste batzuek diote Churchi-

lle esan eta egindakoak garaiko testuiguruan jarri behar direla, bere garaiko pentsamolde nagusiaren isla besterik ez direla eta egun arrazistatzat jotzea anarkonikoa dela.

Bada, Leopold Amery (1873-1955) Churchillren garaikoa zen, bere testuiguru berekoa, zehazki bere aginduetara jardun zuen Indiako estatu idazkari moduan eta, gainera, eskola garaitik lagun zuen lehen ministroa. Eta berak ere Hitler erabili zuen; 1944ko abuztuan, Indiako egoeraz eztabaidan ari zirela, “pazientzia galdu nuen”, idatzi zuen Ameryek, “eta esan nion ez nuela alde handirik ikusten Hitlerren eta bere ikuspegiaren artean”. ●

THE STATESMAN / K. T. HOPKINS



Hebrearrek ere kalamua erretzen zuten

1963an Tel Arad aztarnategian (Israel) duela 2.700 urteko bi aldre aurkitu zituzten, bata bestearen ondoan. Orain, Tel Avivoko unibertsitateko arkeologo talde batek aldareak ikertu ditu eta ondorioztatu dute horietako batean intsentsua erre zutela. Bestean, aldiz, cannabinoide aktiboak aurkitu dituzte, bertan kalamua erre zuten seinale. Propio drogaren eragin psikoaktiboa

bilatzen zutela uste dute ikerlariak, kalamuak ez baitu intsentsuak bezain usain erakargarria.

Jakina da Antzinaroan eta Historiarrean ere kalamua eta beste droga batzuen kontsumoa zabaldua zegoela, baina, Eran Arie arkeologoaren hitzetan, “orain arte ez genuen uste Judeako erresuman erritual erlijiosoei lotutako kontsumorik zegoenik”. ●

ARGIAREN IRRATI EMANKIZUNAK



Segura Irratiaren argia

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

ARGIAko podcast edo audio edukiak beren emankizunetan gehitu nahi ditu Segura Irratiak eta noski, ARGIAk oso gustura jaso du proposamena. Justu horretarako argiaratzen ditu hedabide honek bere eduki guztiak lizentzia librean, beste hedabideek erabili eta zabaldu ahal izan ditzaten, modu horretan bi hedabideak ateratzen baitira irabazten: bere irakurle edo entzuleei eduki interesgarriak eskaintzen dizkielako hedabide bata, eta egin duen kazetaritza lanari hedapena eta erreferentzialtasuna ematen dizkiolako, beste hedabidea.

Segura Irratia ez da edozein irrati. Euskarazko irratiaren artean aitzindarietakoa da. Frankismoaren urte gogorretan sortua, 64 urte beteko ditu aurten. Euskal Herrian gizarte mugimendua pizten ari zela, Seguran erretore zen Zesareo Elgarretak mar txan jarri zuen 1956ko apirilaren 2an gaur arte emititzen jarraitzen duen frekuentzia. Jainkoaren hitza eta Goierriko albisteak eskualdean zabaltzeko asmoz sortu zen Segura Irratia, eta gaur egun aztarna horien arrastoak geratzen badira ere, hori baino gehiago izatera iritsi da.

Segura eta Goierri ingururako hasi zena orain Gipuzkoa osoan ez ezik, Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako herri edo

zonalde batzuetan ere entzuten da hainbat frekuentziari esker, eta teknologiaren aurrerapenaren ondorioz, internet bidez munduko edozein bazterretatik entzun daiteke. Haien datuen arabera, egunean 12.000 lagunek baino gehiagok bat egiten dute frekuentziarekin.

Segura Irratia maitatua da sorterrian eta gustuko dute uhinen bidez jasotzea inguruetako albisteen, nobedadeen eta kontuen berri. Baina programazioa bailarako berrietatik harago doa eta izaten dituzte kulturari, euskarari, kirolari, aisialdiari, literaturari, musikari... lotutako saioak; osatzen dituztenak elkarriketekin, gonbidatuekin edo kolaboratzaileekin.

ARGIAko podcasten berri duela hilabete batzuk izan zutela adierazi dute eta irratiaren programazioan leku egitea erabaki dute. Laster hasiko dira kazetari eduki horiek ematen 89.2 frekuentzian eta Tolosaldean 103.8-an.

Segura Irratikoen proposamena akuilu kitzikagarria suertatu da ARGIAko erredaktoreentzat, astekarirako egiten dituzten edukiak entzuteko formatoan grabatzen jarrai dezaten. Eta nola ez, gainerako irrati-tientzako ere zabalik dago aukera, nahi duenak ARGIAren podcast edo audio emankizun hauek emititu ditzan. ●

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan Argia Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Aldizkari fidagarritzat hartzen dudalako".

Tokioko Sho

"Euskal Herrian dugun komunikabide txukunenetakoa iruditzen zaidalako, irakurri eta bultzatu beharrekoa. Zenbat eta babes komunitate zabalagoa, orduan eta menpekotasun txikiagoa Estatuko instituzioekiko eta publizitatearekiko".

Lekeitioko Ander

"Euskarazko kalitatezko kazetaritza laguntzeko eta nire euskara maila mantentzeko".

Sodupeko Ainara

"ARGIAren konpromiso soziala maite dut. Garaiotan, zapalkuntzarik gabeko gizarte gizabidezkoa nahi dugunok beharrezko dugun bitarteko ezinbestekoetakoa da prentsa independentea, anitza, irekia eta konprometitua".

Donostiako Iñaki

EKAINA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Zer gertatzen da aipagarri landareetan ekainean? Galdera hori egingo balizute zer erantzungo zenuke? Goi medietako ekosistemetan bilakaerak beste neurri batzuk ditu, baina beheko lurraldeetan, hego edo eki, udaberriko puria joan da. Lorealdien eta hosto-janzteen une gorenak igaro dira, eta badirudi hurrengo urrats aipagarria, bantatzeko modukoa, udazkena izango dela; fruituak bildu eta hostajeen kolore aldaketa eta erorketa ikusiko dugun aroa.

Ba ekainak badu bere korapiloa landareen sasoi berriaren harian. Urteko egunik luzeenak ditugu, eta aldaketa handiak heltzen dira, ikuskizun, nahi dituenarentzak. Egun-argiak, luzatu eta luzatu ari denak, laburtu eta laburtzeari ekingo dio. Horrek negua ekarriko du landareen gogamenera. Di-da lausotuko dira udaberriko olgetak eta ospakuntzak. Eta gogamenak, bakoitzarenak berea aginduko dio landare bakoitzari eta gauza asko gertatuko da. Izan ere, izan eta izen asko du ekainak: udaila, errearoa, arramaiatza, ereiario, bagila, jorraila, garagarila, maiatza berri...

Hostoa galduko dute zuhaitz eta zuhaixka ugarik. Bai, gezurra badirudi ere, hostoa galtzeko sasoi izango da. Berez neguan historik galtzen ez dutela iruditzen zaizkigun horiek orain berrituko dute hostajea. Sugeak azala edo hegaztiak luma bezala, zaharra botatzerako azpitik hosto berriak badatoz. Ereintz edo erramu (*Laurus nobilis*), magnolia lore-handi (*Magnolia grandiflora*), gurbitz (*Arbutus unedo*), arte (*Quercus ilex*) eta artelat (*Quercus suber*), mimosa (*Acacia dealbata*), gorosti (*Ilex aquifolium*), garrazki, palmondo eta konifero gehienak orain ari dira hostajea aldatzen. Ez hostaje guztia; gehienetan hostoa bi edo hiru urte bizi ohi da, eta, beraz, hosto batzuk eroriko



dira. Hosto ihar mordoska pilatzen da landarearen azpian, eta, hori ikusita, erabat soilduko ote zaion beldur, izutzen denik ere bada. "Historik ez dute galtzen, eta nola liteke?", diote. Bai, galtzen dute eta lasai, hostoberritzea da landarea ondo eta indarrean bizi den zantzu onena.

Neguan historik
galtzen ez dutela
iruditzen zaizkigun
zuhaitz horiek orain
berrituko dute hostajea

Hosto zaharra bezala, gainean alferrik duten edozein zati ere orain botako dute. Izerdialdi berriak eragindako hazkondeak bultzatuta adar mutur iharak orain ikusiko dituzu landarepean. Nik etxeko atarian ikusi dut keyaki edo Japoniako zelkoba esaten zaionarekin (*Zelkova serrata*). Zaharrak bota eta euriak izerdia puztera laguntzen badu, bigarren kimualdia ere ematen du zenbait landarek, hosto berriko adarren muturretan hosto berria-

goak: haritz kandudun (*Quercus robur*), lizar (*Fraxinus excelsior*), astigararak (*Acer spp.*) eta abar.

Egun-argiaren luzatzetik laburtzerako koska hau loratzeko baliatzen dutenak ere badira. Orain loratu eta udazkenerako fruituak eta haziak pronto ugalketarako. Gaztainondoa (*Castanea sativa*), luisa-bellarra (*Lippia citriodora*) eta magnolia lore-handia dira horietako hiru. Orain loratzen diren horiek lore usaintsuak izan ohi dituzte. Bista txarra baduzu ere, sudurrak eramango zaitu beraiengana.

Ekaineko loraldietan aurten badugu bixikeria bat, egundo ikusi gabekoa: sagarrondo (*Malus domestica*) batzuk loretan. Ez bat eta ez bi, dezente baina. Sekula ikusi gabekoa eta sagarrondoaren loraldiari buruzko esaera ezagunenak jasotzen ez duena: "Martxokoa ez balitz hobe, apirilekoa urrea eta maiatzekoa ezer ez baino hobe". Ekainekoa ere erantsi beharko diogu aurten; eta hemendik atzerako urteetan ere erabilgarri izango dugula ez izan zalantzarik. Klima aldaketaren eragin garbia. Nire proposamena: "Eta ekainekoa azkena", inola ere behar ez dena, alegia. Ea ba, bota zeurea! ●

Ostegunero
kontsultategia
18:00etan

Ostegunero 18:00etan landare kontsultategia egiten du Jakoba Errekondok zuzenean, www.argia.eus webgunean edo **Facebook**eko Bizi Baratzea orrian.

Bidali zure galderak aurrez:
landarekontsultategia@bizibaratzea.eus

EHUN HAZI BARIETATE BAINO GEHIAGO MERKATURATU DITU ALEKA ELKARTEAK



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

2016 inguruan hasi zen Kelo Arribas hazien ekoizpenarekin lotutako proiektua mugitzen: “Agroekologiaren munduan ibilia nintzen lehenagotik Uztaro kooperatiban, baina horren ibilbidea bukatu zenean buruan bueltatu nuen beste proiektu hau garatzeko aprobetxatu nuen”. Euskal Herrian dagoen hazien merkatuari alternatiba sortzea du helburu Aleka elkarteak. Noski, elkar-teko kideek argi dute alternatibak bertakoa, agroekologikoa, artisaua eta baserri txikietatik sortua behar duela izan.

EKOIZLE TXIKIAK MULTINAZIONAL HANDIEN AURREAN

Arribasen Beizamako baserrian du haziak garbitu eta prozesatzeko gunea Aleka elkarteak, horretan dihardu berak. Beste bederatzi kide ere badira Alekako parte, eta beraien barazki ekoizpenez gain elkar-tearentzako haziak ere ekoizten dituzte. “Denboraldia hasi aurretik asanblada egiten dugu eta gure artean landu beharreko barietateak banatu”. Haziak garbitu, analisiak egin, eta hezetasun eta tenperatura jakin batekin kontserbatzeko makinaria Beizaman dutenez, hara biltzen dituzte hazi guztiak.

Aspaldidanik barazki ekoizlea zen Arribas, eta lehendik ezagunak zituen barietateekin hasi zen lehenik: “Baserriar txikientzat ekonomikoki ere garrantzitsua da ongi funtzionatzen duten barietateak eskura edukitzea”. Baina



mendeetako ondare genetikoa nolanahi galtzen ez uztea ere badute asmo elkar-teko kideek: “Hazi bakoitza gure historia ere bada, aurreko belaunaldietatik dator, batez ere gure amonek mendeetan egin duten lana da, guganaino iritsi dena. Ardua handia dugu horrekin, ezin dugu besterik gabe galtzen utzi”.

LEGEDIA ALDATU BEHARRA

Ehun hazi barietate baino gehiago merkaturatu ditu dagoeneko Aleka elkarteak, baina bankuan badituzte barietate gehiago ere kontserbatu eta horiekin frogak egiteko. Azoka ekologikoetan, lore eta landareenetan eta hainbat koo-

peratibatan saltzen dituzte beraien haziak, eta horrez gain, Beizamako baserrian bertan eta korreo bidez ere bai.

Hazien inguruan geroz eta proiektu eta ekimen alternatibo gehiago sortzen ari badira ere, Europatik datorren legedia aldatzea ezinbestekoa dela gogorazi du Arribasek: “Oso larria da gaur egun bertako barietateak ezin saldu ezta trukatzeko ere. Araudi hori baserriarren autonomiaren aurkako monumentu bat da”. Elikadura burujabetzan aurrera egiteko ezinbestekoa izanzen da hazien gaian ere multinazionalak babesten dituen legediaren aurka egin eta txikien interesak lehen lerrora eramatea. ●

Zure osasuna zaintzeko garaia da. Bertokoa eta ekologikoa kontsumitzeko garaia da.

Euskadiko Elikagai Ekologikoak
Alimentos Ecológicos de Euskadi

Agustin Arrieta

ITZULERAKO BIDAIAREN XENDAN

Agustin Arrieta irakasle preziatua da EHUKo filosofiako ikasketetatik igaro direnentzat. Fakultate eremutik kanpo ez da oso ezaguna, nahiz eta liburu mordoxka bat argitaratua duen dagoeneko; batez ere filosofiari buruzkoak – besteak beste, *Sinesmenak eta usteak*, *Arimak eta balioak*, *Filosofiarako sarrera bat*, *Zientziaren argi-itzalak* –, baina baita literatur sormenezkoak ere, ipuingintza generoaren barruan –*Istripuak*, *Irlak*–.

Akaso filosofiak eskatzen duen patxada, zehaztasuna eta estiloa espektakulu mediatikoarekin ez delako ondo bat etortzen izango da, baina ez gabilta handizka Arrieta gure arteko pentsalari finenetako bat dela badiogu. Bere azkeneko liburua da *Gogoeta-bide irekiak. Fikzio, egia, balio eta hezkuntzari buruzko saiakera filosofiko bat*, iazko urte bukaeran argitaratua eta garai horretako liburu-zurrumbiloan apur bat oharkabean igaro zena.

BEÑAT SARASOLA SANTAMARIA DANI BLANCO

Autorearen orain arteko lan mugarrietako bat da, eta egungo bere pentsamenduaren argazki zehatz samarra ematen du, filosofiaren esparru gehienetako –estetika, etika, epistemologia– hainbat gai banaka aletuz. Berak aitortzen duenez, “programatu gabeko liburua izan da”, hots, EHUKo Filosofia graduako eskolako dinamikan sortutakoa. “Batez ere lehenengo mailan, Filosofiarako Sarrera ikasgaian, ikasleen galderetan detektatu izan ditudan gai batzuk dira jorratzen ditudanak. Gaiok oso presente daude, eta gainera urte batzuetan luzatu izan dira gelan. Horretaz gain, komunikabideetan ere presentzia handia hartu dute. Giroan dauden gaiak dira”. Besteak beste honakoak: fikzioaren eta ezagutzaren arteko harremana, arte immorala, umorea, adierazpen askatasuna, egia-ostea, zientzia-neul-

traltasuna, balioen eszeptizismoa, animalien eskubideak, gizakiaren izaera naturala edo kulturala, aukeramenaren auzia. Horietaz gain, azkeneko atalean, filosofiak hezkuntza sisteman izan dezakeen lekuaz dihardu, tartean erlijioa ikasgaiaren pertinentzia (eza) planteatuz. “Gai horiek sustrai filosofiko argia dute, eta gutxitan entzuten dut filosofiaren ahotsa komunikabideetan-eta jorratzen direnean. Horrela hasi nintzen gaiok banan-banan lantzen. Jorratu ahala gaien arteko zubiak eraikitzen hasi nintzen; ez modu artifizialean, baizik eta denen artean loturak daudelako, halako sare moduko bat osatzen dutelako”.

Liburuaren sarreran filosofia egiteko modu bat defendatzen duzu, esplikatuz zenezake zertan datzan?
Badakit arazo filosofikoak oso zailak

direla batik bat oso transbertsalak direlako, eta normalean helduleku finkorik ez dugulako edo aztertu beharreko ertz asko esku artean ditugulako. Nire ulermenean auzi filosofikoak egunerokoan sortzen dira. Ohikoa eta arrunta da esatea “hori egia (ederra, justua) da”. Zer dira, bada, egia (edertasuna, justizia)? Baina egunerokoan sortutako horren inguruan eztabaida eta instituzio konplexuak eta sofistikuak –zientziagintza, artearen mundua, zuzenbidea, besteak beste– sortzen dira. Eta eztabaida, halaber, sofistikatu edo akademiko bilakatzen da. Horren harira, askotan arrisku bat egoten da: gehiegi urruntzea jatorrizko interes horretatik. Uste dut ezin dugula erro hori ahaztu. Analisi filosofikoaren ondoren itzuli egin behar gara eguneroko bizitza horretara, itzulerako bidaia hori egin behar dugula sinetsita nago.



Elkarriketaren bukaera aldera berriro ater da gaia. Ez ote du gaur egungo ikerketa sistemak eta unibertsitate giroak hain justu kontrakoa bultzatzen? “Truditzen zait sarritan kontu akademiko-eskolastikoetan katramilatzen garela –neroni ere erori izan naiz horretan–, eta ahaztu egiten dugula itzulerako bidaia hori”, erantzun du. Bidaia horrek ekar ditzakeen ondorio akademikoak iradokita, alegia, politika akademikoek justu kontrakoa bultzatzen dutela, berehala etorri da erantzuna: “Sumatzen ari naiz partida horretatik kanpo geratzen ari naizela. Baina jada ez zait axola. Agian eduki dut kezka hori, inpresioa izan dut uzten ari nintzela zer edo zer, urte luzetan egindako bidean. Baina tira, niretzat horrelako elkarriketa bat izatea lehen ezinezkoa zen, eta hau niretzat oso interesgarria da, ez soilik niretzat, bai-

zik eta defendatzen dudan filosofiaren ikuspuntu horrentzat”.

Liburuko lehen atalean umorearen gaiaz hitz egin duzu, haren mugak, immoraltasuna eta abar. Ez da filosofiaren esparruko gai oso ohikoa.

Arte kontuetan-eta nahiko jarraitu dut Noël Carrollen eta beste zenbait autoreren –Berys Gaut, Anne Eaton– obra, eta momentu batean, horiek lantzen ari nintzela, Carrollen umoreari buruzko testu bat eskuratu nuen –*Humour: A Very Short Introduction*–. Bestetik, konprobatuta daukat gelan, lehenengo mailan, umorearen auzia dela pizgarrienetako bat. Azkenik, Maddi Nazabalekin egin nuen topo eta haren umoreari buruzko Gradu Amaierako Lana zuzendu nuen. Interakzio horretatik eta klasean piztutako kezkatik sortu nuen kapitulu hori.

Ring txiki baten moduan ikusten dut umorearen gaia, artearen inguruan dauden eztabaida asko ere eraman ditzakezu-eta lagin txiki horretara. Zer gertatzen da? Lagin txiki hori berez badela nahiko konplexua.

Eta funtsean azpimarratzen duzun ideietako bat umorearen askotarikotasuna da.

Inpresioa dut filosofiaren ahotsa falta dela batez ere umorearen muga etiko-politikoez jarduten denean komunikabideetan. Hor daude adierazpen askatasunaren gaia edo fikzioarena, adibidez, edo estereotipoen gaia, zeina gai psikologiko bat den, baina egun zientzia kognitiboetan eta filosofian ere sakon aztertzen den. Eta askotan, estereotipoen inguruan esaten direnak orokorkeriak izaten dira, oso eztabaidagarriak direnak, eta horregatik

uste nuen filosofiak gaia ñabartu zezakeela.

Horren barruan, testuinguruaren azterketa ezinbestekotzat jotzen duzu.

Bai, testuingurua da klabeetako bat. Beste bat, umorearen fikzio izaera. Adibide batzuek argi eta garbi erakusten dute egoerarik latzenak ere –tortura, kontzentrazio esparrua– umoregai izan daitezkeela. Atzo, Nazabalek beste adibide bat bidali zidan: Joseba Sarrionan-

diaren pasarte bat non zera aipatzen zuen: kartzelan nola erabiltzen zuten beren preso egoerari buruzko umore beltza. Horregatik, umorearen ebaluaketa testuinguruaren arabera egin behar da. Testuingurugabetzea da umorearekin egin daitekeen akatsik larriena. Hor dago egun sare sozialekin gertatzen dena: txiste bat egin dezakezu baina ezin duzu testuingurua ondo finkatu, askotarikoa izan daitekeelako. Horixe gertatu zen kasu ospetsu batean, Madrilgo Guillermo Zapata zinegotziarekin. Egia da

epaileek arrazoi eman diotela, baina zer edo zer ikasiko zuen: kontuz, zuk ezin duzu jarri umore pieza bat non arriskua dagoen testuinguru gabe geratzeko.

Zentsuraren gaiarekin lotzen da hori.

Jakina. Adierazpen askatasuna maximizatzearen aldekoa da nire posizioa, argi eta garbi, baina horrek ez du baztertzen zentsuratzeko aukera. Haatik, pentsatu behar da bat, bi, hiru, lau, bost aldiz ate hori ireki aurretik. Errezeta zein da? Agian inozokeria dela irudituko zaio inori, baina tira: kritika. Umorearen gustu hori landu daiteke kritikaren bidez, eta nire esperantza da garai batean onargarria zen umorea denborarekin ez izatea, adibidez. Zentzu horretan pentsamendu feministak izugarritzko ekarpena egin du, eta nire kasuan, oso garrantzitsuak izan dira Anne Eatonek defendatzen dituenak gai paralelo baten inguruan, pornografiaren inguruan alegia.

Besteren artean, egia-osteraren gaia jorratzen duzu bigarren atalean, eta horretarako Hanna Arendten testu bat erabiltzen duzu. Uste dut Filosofiako lizentziatura guztian ez genuela landu.

Hanna Arendt Martin Heideggeren ikaslea izan zen, eta nik erabiltzen ditudan egileengandik nahiko aparte dago –nahiz eta garai batean Heidegger asko irakurri nuen–. Banekien, bestalde, Arendt kazetari lanean ibili zela Ameriketako Estatu Batuetan, eta nonbait haren testu baten erreferentzia topatu nuen, non kazetaritzarekiko kezka adierazten zuen 70eko hamarkadako Pentagonoaren Paperen auzia zela eta. Testu horretan politikaren, kazetaritzaren, zuzenbidearen eta negazionismoaren –zientziari atxikia– inguruan egiten dituen aipamenak ia-ia gure garaiaren erretratu bat iruditu zitzaizkidan, nahiz eta ez duen egia-oste hitza erabiltzen. Halere, fenomeno bikiain deskribatzen du totalitarismoarekin lotuz. Beretzat, egia-ostearen fenomeno totalitarismorako ate bat da.

Eta nola egin aurre fenomeno horri?

Arendtek “egiaren gordailua” kontzeptua proposatu zuen. Horren barruan legoke ikerketa orokorra, ezin baita ikerketari erreferentziarik egin egia eta bere inguruko kontzeptu sateliteak –objektibotasuna, zorrozatasuna, zehaztasuna, koherentzia, ebidentziekiko begirunea– erabili gabe. Eremu horiek babestu egin



behar dira, bere arabera. Hain justu, egia-oste garaian gertatzen dena da balio horiek alde batera uzten direla. Egia da garai batean posmodernismoaren ahotik etorri zela hori, baina gaur egun mugimendu ultraeskuindarrek erabiltzen dute indar handiz mezu hori –negazionistak hor kokatzen dira, adibidez–. Politikaren aldamenean beti egon da gezurra, baina Arendt kezkatuta dago dimentsioarekin. Zer esango luke gaur egun? Zentzu horretan, Arendt foku bat izan da niretzat.

Kazetaritzarekiko kezka agertzen duela esan duzu.

Bai, izan ere, uste dut kazetaritzak arazo bat duela balio horiei uko egiten badie. Egin daiteke ikerketa horiek baztertuz? Ni kezkatuta nago gai honekin baina pixka bat apokaliptiko jartzen naiz, zeren zurrumbilo honetan denok sartzen gara modu batean edo bestean.

Hirugarren atalean batez ere etikarekin loturiko gaiak azaltzen zaizkigu eta horien artean animalien eskubideena dugu. Mami filosofiko handia du, aspalditik jorratu izan da, baina badirudi geroz eta indar handiagoa duela animalismoaren indartzearekin.

Gaiak badu puntu klasiko bat –filosofo gehienek zer edo zer esan izan dute animalien inguruan–, nahiz eta animalismoa Peter Singerren eskutik etorri zen XX. mendean. Eta bai, gelan oso presente eta ia omnipresente dagoen gaia da. Kapitulu horretan egiten dudana da ñabartu, batzuetan maila berean jartzen direlako, esate baterako, feminismoaren borroka eta animalismoarena; eta nik defendatzen dut nire ustez tribiala den zerbait: ez direla gauza bera.

Zergatik ez dira gauza bera?

Animaliek ez dutelako sekula izango erantzukizunik, eta nik eskubide kontzeptua haren testuinguruan ulertzen dut. Guk eguneroko bizitzan –baita epaitegietan ere– pertsonak zigortu egiten ditugu modu batean edo bestean, ulertzen dugulako askatasunez

erabaki batzuk hartu dituztela, adibidez, baina hori animaliekin ez da posible. Eskubide kontzeptua joko horretan ulertzen bada, erantzukizunari eta askatasunari lotuta, nik esango nuke animaliek ez dutela eskubiderik. Eskubide kontzeptua beste zentzu batean ulertzen badugu beste kontu bat litzateke. Hau da, ulertzen badugu badirela izaki batzuk egoera jasangaitzak pairatzen dituztenak eta, beraz, nolabait

teko eskubideak aitortu behar dizkiegula, orduan bai, eta uste dut hor animalismoak ekarpen garrantzitsua egin duela. Baina sekula ez nuke berdinuko emakumeen eskubideen auziarekin, adibidez.

Azkeneko atalean filosofiak sisteman izan dezakeen lekua inguruan hausnartzen

duzu. Zein aportazio egin dezake hezkuntzaren filosofiak hezkuntzan?

Ez zait batere gustatzen pentsatzea zientziak daudela alde batetik, eta bestetik letrak, arteak, filosofia... Uste dut sailkapen ofizial horiek oso kaltegarriak direla. Diziiplina horiek osagarriak dira, baina gaur egungo gizartean ez goaz bide horretatik. Bolsonarok filosofia kanporatu du sistematik, horixe da egin duen lehenengo gauza. Nik ez dut filosofiaren aldarrikapen politiko bat egin nahi. Nire inpresioa da zientzia, arteak eta filosofia –diziiplina berezia delako– uztargarriak direla eta hori ona dela sistema osoarentzat.

Zein zentzutun?

Erliziozaleek aldarrikatzen duten gizakiaren alderdi espiritualaren oso ondo jorratu daiteke arteari erreparatu, filosofian planteatzen diren auziak landuz, historia gogora ekarri, eta abar. Benetan errespetatu behar dira diziiplina humanistiko horiek onak direlako gure gizartearentzat, hezkuntza benetan oso eta humano bat lortzeko, ez dena soilik errentagarritasunean edo merkatal balioetan oinarritzen.

Arrietaren filosofia egiteko moduak badu tonu aristoteliko bat, haren “erdigune egokia”ren ideiarekin bat datorrena. Hala, auziak bi posizio kontrajarrien bidez aurkezten ditu maiz, eta gero bien arteko bide zabal horren barruan aritzen da ñabardurak egiten. Horrekin lotzen da berak defendatzen duen “zentzu komuna” kontzeptua baita ere. Horri buruz galdetzen amaitu dugu solasaldia.

Ez dakit “zentzu komuna” dela eta jaso duzun kritikarik. Izan ere, iruditzen zait halako kontzeptuekiko mesfidantza dagoela gaur egun; inork esan diezazuke, adibidez, zentzu komuna azkenean dela gizartean nagusi den diskurtsoaren justifikazio moduko bat: maskulinoa, klase nagusiarena, eta abar. Horri zer esango zenioke?

Kritika batzuk oso zentzuzkoak iruditzen zaizkit. Orain *Sinesmenak eta usteak* liburuari erreparatu [han garatu zuen bereziki kontzeptua] eta lan asko dagoela egiteko konturatzen naiz. Nik erabiltzen dudana moduan, kontzeptu horren oinarrian dagoen intuizioa honakoa da: zentzu komuna metodologia moduko bat da, baliabide batzuk dituen –behaketa, oroimena, arrazoitzea–. Pakete hori denon eskura dago, eta kritikoa da bere baitan, etengabe bere bu-
rua kuestionatu eta zorrozten

duelako, eta beraz, oso demokratikotzat dut. Ez nago oso seguru “zentzu komuna” den hitzik egokiena, baina niretzat metodologia antzeko bat da, edozein arazori erantzuteko erabili behako genukeen. Erljioa, esate baterako, atera egiten da metodologia

horretatik: pertsona batzuek dute soilik harremana Jainkoarekin, edo pertsona batzuek bakarrik dituzte gaitasun berezi batzuk ezagutza lortzeko. Egia da historikoki zenbait pertsona, emakumeak adibidez, metodologia horren erabilera osotik kanpo utzi direla, eta hori kritikatu behar da, noski. Horregatik nioen autokritikoa dela. ●

Testuingurua kentzea da umorearekin egin daitekeen akatsik larriena”



LIBURUA

Errealitatea, koska bat estuago



MIEL ANJEL ELUSTONDO

NOIZ ARTE ARRAZOI JUAN KRUZ IGERABIDE

ALBERDANIA, 2020

IGOR ESTANKONA

Anjel Lertxundiri opatzen dio liburua Juan Kruz Igerabidek (Aduna, 1956) "maite ditugunak galdu ahala, hitzen zurrunbiloan biziberritzen ditugulako". Perspektibarekin idazten du Igerabidek, badaki ezer ez dela betiko, eta beti izango dela hala. Badaki, halaber, ezer ez dela egia, eta egia bakarria horixe dela.

Juan Kruzek Adunan idatzitako aforismoek, edo Hipokratesek Kosen idatzitakoek berdin, denek sortzen didate zalantzaren durundua barruan, denek ematen didate zer pentsatua. Aforistikoak ez dira nire obra gogokoenak, baina Igerabiderenak denak irakurri ditudala esango nuke: guztietatik atera dut ikaspenen bat, gozamenen bat. Nire musukoarekin sartu nintzen Pozaseko Elkar dendan Jon Savageren Joy Division-en


inguruko liburua erostera eta *Noiz arte arrazoi* (Alberdania, 2020) honekin aterantz nintzen. Atera hortik kontuak.

Post-punketik bai baitauka Igerabidek: "Loreak Jainkoagandik badatoz, haiek elikatzeko simaurra ere bai. Uneren batean, Jainkoari kiratsa dario".

Liburu hau da hartu, hausnartu, eta uztekoa. Eta berriro hartu, hausnartu eta uztekoa. Aforismoei eurei buruz ikasten da hemen, aforismoen bidez: "Indian, aforismoak meditazioa ikasi zuen", eta "Txinan diseinatu zuten jadedeko aforismoa", edo "Erromak aforismo epigramatikoa zorroztu zuen". Arin. Zitzuan. Gai lodiak di-da ebazten dira hemen. Generorik laburrena ederki dominatzen baitu Igerabidek. Twitterreko txiorik fragmentatuenak baino laburragoak askotan, bere sententziak gezurra

bezain eraginkorrak dira, baina egia biltzen dute: "Historia aitzina doa, geldiezin; eta atzetik datorkio, ziztu bizian, ahanzturaren orban unibertuala". Egia bakarria ez den egia horren bila ironia, lirismoa eta paradoxa darabiltza idazleak. Poesia eta aforismoa elkar ukitzen daude beraz liburu honetan.

Batzuetan ematen du Juan Kruz Igerabideren piezak ezin direla gehiago laburtu, eman dien horixe dela euren eite minimoa. Halakoetan jotzen du goia arte klase honek; kenduz-kenduz ondutako aberastasun bat delako. Gainera maxima edo sententzia baino harago doa, ez duelako ezer frogatu nahi, ez delako ezeren ispilu, soilik duda egiten duenaren duda, existitzen denaren solasa: "Bakoitzari izar bat dagokio, eta zulo beltz bat". ●



MUSIKA

Bide bat bilatzen, aurrera egiteko



EIDER ITURRIAGA / IZARBE PHOTO



LEPORA LEPORA

BONBERENEA EKINTZAK, 2020

JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Rock doinu biziak, bortitzak, ilunak, gordinak, eta eromen gisako giroak entzun daitezke Lepora Gasteizko talde berriaren estreinako diskoan. Taldekideek 90eko hamarkadako hainbat rock talderen eraginak dituztela onartzen dute, eta Lepora sortu aurretik aritu ziren taldeen ukituak ere antzeman daitezke: Same Old, Eh!, Libe, Bronze, Tutan Come On, Iont, Kashbad eta Trumbo. Horrela, eskarmentu handiko musikariak direla nabarmena da.

Taldeak urtarrilaren 31n egin zuen bere lehen jendaurreko emanaldia Gasteizko gaztetxean, Muinoko Hotsak egitasmoko egitarauaren barruan, baina bi urte inguru daramatza entseguak egiten, kantak sortzen eta bere soinu eraikitzen, bere musika proposamena zehazten. Denbora honetan egin dituen kan-

ten arteko zortzi bildu ditu bere lehen diskora.

Kanta bakoitzak baditu bere ezagarriak eta xehetasunak, baina denetan nabarmentzen dira bateriak eta baxuak osatzen duten oinarri sendoa, gitarraren marrazki zorrotzak eta kantariak abesteko erabiltzen dituen ahots erregistro mota desberdinak.

Kantetan gordin mintzo dira, hitzek eta doinuek bat eginik. Besteak beste, egungo bizimoduari buruz aritzen dira, harremanei buruz, sentimenduei buruz, eta etorkinen tragedia, boterea, agintariak eta jendearen alienazioa eta artaldekeria ere hizpide dituzte. Azken batean, bide bat bilatzen ari dira aurrera egiteko. "Lurra jotzean nekeza da berriz altxatzea, baina saiatzeak merezi du nekea", diote *Dardo uxa* kantan.

Taldekideak gustura egongo dira haien lehen diskoarekin. Lan ona egin dute, eta soinu trinkoa eta indartsua gauzatu dute, itzela, grabazioaz eta nahasketez arduratu den Karlos Osinagaren laguntza estimagarriarekin.

Diskoa binilo eta CD formatuetan kaleratu dute. Binilo moduan erosiz gero, karpetaaren barruan CDa ere badago. Diskoa eskuratzeko zailtasunik egonez gero, Internet bidez eros daiteke eta postaz jaso Bonberenea Ekintzak zigiluaren webgunearen bidez (www.bonberenea.com), eta modu digitalean ere bai, taldeak Bandcamp plataforman duen gunean (lepora.bandcamp.com). Diskoa eskuratu bitartean, kantak Badok atarian (www.badok.eus) eta Bandcampen ere entzun daitezke. ●



Garaikide izateko aukera

 XALBA RAMIREZ  J MARTINA

Euskal Herri iraultzaile eta borrokalaria iraganeko kontua da. Esan nahi dut, iruditzen zaidala iraganean ikusten ditugula gertatu diren iraultzak, baina unean kontserbadoretik gehiago izan ohi dugula. Kulturgingintzan batez ere.

Javi Jorajuria Barañaindik eta Kattalin eta Ane Barcena Larrabetzutik dira J Martina. Konfinamendu batean eskaini dute kontzertua Barcena ahizpek euren etxetik, Jorajuriaren base elektronikoekin eta autotunearekin topera. Streaming kontzertu gehienek bezala ez du zuzeneko baten itxura ezta emoziorik ere, baina kontzertu hau berezi egin duena taldearen estreinua izan da.

Bi kanta kaleratu dituzte, kasualitatez, konfinamendu garaian. Elektronika geldoa, autotunea eta letretan arreta dira taldearen osagai nagusiak. Eta interese handia piztu dute dagoeneko.

Paul Beitiak manera zoragarrian euskaratu zuen beste proiektu baterako Camarón de la Isla-ren *Viejo Mundo* kanta, eta bertsio horren bertsioa eginez aurkeztu zen taldea etxean egindako bideo-klip zaindu batekin. Produkzio oso gordin proposatzen dute, erritmo kutxa eta sinte gutxi batzuekin, ohiko egitura komertzialetik nahiko urrun.

Proposamenaren berritasuna ez dakar elementu hauen erabilerak. Elementu hauen erabileran kontingentziak baizik. Esango nuke elementuak hautatu direla kanta egiteko eta kito, eta ez orain arte egon izan diren “euskal trap”, “euskal reggaeton” edo nik zer dakit zein etiketa bilatuz, merkatu-nitxo horren bila.

“*Al que asome la cabeza duro con él*” zioen Carlos Puebla handiak; eta gurean antzeko autotunearekin eta musika elektronikorekin: “tranpa” omen. Mundu osoan originala dena, erronka artis-

J MARTINA

STREAMING BIDEZ

Berakatz Zopa TB-n apirilaren 26an.

tiko berria dena, hemen mesfidati ikusten dugu. J Martinakoek beraiek onartu behar izan dute uste zutena baino *hater* gutxiago izan dutela inguruan.



Entzun nuen behin, Elbira Zipitria andereñoak Ipar Euskal Herrira eraman zituela bere ikasleak euskal jaialdi batera. Eta ez Dok Amairukoak taularatutakoan kalera atera zituela ikasleak. Ez zuen begi onez ikusi gitarradun euskal kantu berri hori. Zipitria andereñoa, hain aurrerakoia gauza batzuetarako... eta tira!

“Kaleak su hartu du, ez naiz beldur. Erretzen ikusiko al dugu?” kantatzen ireki dute –denboraldi batez bukatzea espero dudan– streaming bidezko kontzertua. Euskal kulturen belarriak irekiago edukiko dituen eszena eta belau-naldi berri batean esperantza pixka bat. Hartu dezala su hartu behar duen guztiak, garaikideago eta, zergatik ez, futuristagoak izan gaitzen. ●



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA UGO MAYOR MARTINEZEK, EHU-KO BIOKIMIKA SAILEKO IRAKASLE ETA IKERBASQUE IKERLARIAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

5				9	7		
8	6		2		4		5
7							
					6		
4			1	7	2		8
			8				7
				8			
	1	6		4	2		
2	4		9	1	5		6

ERRAZA


		7		1			
3					8	7	
	1		4			3	
1				8	4	2	
				6			
	6	9		1			3
	5			9		4	
	4	8					9
			7		3		

ZAILA

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Bi alde edo gehiagok eginiko hitzarmen.
2. Lastima, atsekabe.
3. Aldarte.
4. Astuna.
5. Bihiak, garauak.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				B	I	D	E	A
2	A				O	G	I	A
3	Z	A				T	Z	A
4	E	T	E				D	I
5	B	I	Z	T				E
6	E	D	O	Z	E			

EBAZPENAK

2	4	8	9	1	7	5	3	6
3	1	6	5	4	2	8	7	9
9	7	5	3	6	8	1	2	4
6	5	2	8	3	4	9	1	7
4	3	9	1	7	6	2	5	8
1	8	7	2	9	5	1	6	4
7	9	4	6	5	1	3	8	2
8	6	1	7	2	3	4	9	5
5	2	3	4	8	9	7	6	1

ERRAZA

2	9	1	7	4	6	3	5	8
7	4	8	1	5	3	2	6	9
6	5	3	8	2	9	1	4	7
4	6	9	5	1	2	7	8	3
8	7	2	3	6	4	9	1	5
1	3	5	9	8	7	4	2	6
9	1	6	4	7	8	5	3	2
3	2	4	6	9	5	8	7	1
5	8	7	2	3	1	6	9	4

ZAILA

PUZLEA: "DESESKALADAREKIN EGIN DUTENA TXANPON BAT AIRERA BOTATzea DA. GAIZKI ATERATZEN BADA POSIBLE DA HIRU ASTE BARRU KONFINAMENDURANTZ JO BEHAR IZATEA."

5XS: 1. ITUNA, 2. TAMAL, 3. UMORE, 4. NARRA, 5. ALEAK.

HIZKI BERAK: 1. LANBIDEA, 2. ANALOGIA, 3. ZALANTZA, 4. ETENALDI, 5. BIZTANLE, 6. EDOZELAN.

Aizpea Goenaga

AKTOREA



MUSEOAN HATSA HARTZEN

Euskal sorkuntzaren gurpilak harrapatu zuen eta horri eragiten jardun du hasiera hasieratik. Madrilen bizi izan da, baita New Yorken ere. "Berdin zait non egon, bizitza berehala eraiki dezaket edonon. Atzerria ez da arazoa, euskaldun kulturarekiko dugun konplexua da arazoa". Kulturaren aldeko apustu handiagoa aldarrikatzen du. Etxepare Euskal Institutuko lan eskaintzari uko egin zion hainbatetan, baita Oiasso Erromatar Museoko proposamenari ere; "emakumea eta erronka berriak, badakizu", dio begiak gorantz. Baina bata zein bestea onartu zituen azkenean, eta museoan hartzen du hatsa egun.

"Sortzen dugunok ezin dugu jubilatuta eta zorionekoak gu"

Ibilbide handikoa da Aizpea Goenaga (Donostia, 1959). Egonkortasunik gabeko aktore ofizioaren aldeko apustua egin zuen orain dela urte batzuk. Inolako damurik gabe eta irribarretsu kontatzen ditu garaian harturiko erabakiak. "Oso zaharra naiz eta gauza asko egin ditut", aitortu digu ahoan bilorik gabe. Egun, Irungo Oiasso Erromatar Museoko koordinatzailea da. Museoa lau paretako eraikuntza bat baino gehiago dela gizarteratzeko erronka du une hauetan esku artean, eta horrek ere badu sormenetik. Bertan hartu gaitu, pozik.

AITZIBER ZAPIRAIN IRANTZU PASTOR

Oiasso Erromatar Museoko koordinatzailea zara egun, nolatan?

Arkeolan fundazioak Irungo Udalari bere burua aurkeztu zion museoaren kudeaketarako, eta aurkeztu orduko deitu egin ninduten postua eskainiz. Etxepare Institutuko proposamenarekin ukan nuen erreakzio berdina eduki nuen: ezetz esan nien hasieran. Ni lanean ari bainintzen, nire gauzetan baina lanean. Jardun erdia izanen zela aipatu zidaten eta orduan animatu egin nintzen. Gogoan dut lizitazioa atera zela esateko deitu nindutenean idazten ari nintzela eta biharamunean lanera joateko eskatu zidatela. Eromena izan zen, baina oso polita aldi berean. Gipuzkoan dagoen museo arkeologiko bakarra dugu, eta benetan ederra da, altxorra. Egia esan, goitik behera ezagutzen dut jada, baina beti topatzen dut zer bait berria. Museoa leiho bat da, jakinmina pizten duena. Bisita egin eta informazio gosez ateratzen zara hemendik. "Irakurriko nuke liburu hau" pentsatuz.

Erromatar garaia egiten da bidaia museoan sartu eta berehala.

Erromatar museoa da, baina bereziki erromatar garaiko museoa. Garaian hemen zeuden biztanleek zuten bizitzaren berri ematen du, eta horrez gain erromatarrek gureri ekarri zutena ere biltzen du. Ikuspegi orokorra eskaintzen du erromatarrek garaian izandako eraginaz. "Erromatarren eragina" deituriko gela bat dugu, eta erromatarrek etorri aurretik bertako biztanleak nola bizi ziren ikus daiteke, baita erromatarrek iritsi ziren unean nolako ohiturak zituzten ere. Baina bereziki erromatarrek ekarri zutenak hartzen du zentralitatea. Ezin baitugu ahaztu erromatarrek bizitza modu bat ekarri zutela. Oraindik ere gudan bizirik dirauten ohiturak ekarri zituzten. Ez dut gehiago kontatuko, etortzeak merezi duelako, kar kar kar. Eta ez ahaztu museoarekin batera Santa Elenako nekropolia dugula. Mineriak inguru honetan garran-



"MUSEOA LEIHO BAT DA, JAKINMINA PIZTEN DUENA. BISITA EGIN ETA INFORMAZIO GOSEZ ATERATZEN ZARA HEMENDIK".

tzi handia izan baitzuen, Oiasso urbana sortu baitzen hemen meategiak zeudelako eta ustiari zituztelako, bai erromatar garaian baina baita askoz lehenago ere.

Bestelako jarduera ugari ere eskaintzen dituzue museoaren bueltan.

Hau museo leihoa da, etengabe kuriositatea pizten duena. Guretzat, bizirik dagoen gunea da, organikoa den zerbeit. Iraganeko aztarnak jasotzen ditu, iraganeko historia kontatzen du, nondik gatozen jakin dezagun, baita nor garen jakiteko ere. Ateak zabaltzen ari gara etengabe, jakinminaren bidea urratuz. Izan literaturaren, hitzaldien, musikaren edo artearen bidez. Antzerkia egin nahi dugu, mundu klasikoan antzerkia oso garrantzitsua izan baitzen. Katarisia sortzeko aukera zen garai hartan antzerkia. Eta ohitura horrek iraun du gaur egun arte! Modu klasiko hori berreskuratu nahi dugu eta gazteekin batera hainbat esperientzia martxan jarri. Zinemak ere hurbiltzen gaitu mundu hartara eta horretarako FICAB festibala

antolatzen dugu urtero. Museoa bizirik dago, dinamikaz josia.

Nola mantendu halako dinamika?

Museoak gizartearekin lotura estua izan behar du. Ezinezkoa da museo hotz batek aurrera egitea gaur egun. Beraz museo bizia izan dadin ahaleginak egiten ditugu.

Egitasmo bat dugu, museoak jasotzen duena plazaratzeko eta aldi berean honek hirian duen eragina azaleratzeko. Horretarako aplikazio bat sortu dugu. Norberak bere kasa bisita gidatu bat egin ahalko du, eta behar duen informazioa eskainiko dio aplikazioak. Baina horri ekin aurretik, lehenengo saiakera bat egin nahi dugu. Museoa nola sortu zen kontatzen dugu bertan, aztarna arkeologikoak nola eta non aurkitu ziren... Oso tresna erabilgarria da.

Eskuliburu bat ere baduzue esku artean.

Bai, historia margotzeko liburua da. Haurrek irudiei koloreak jartzea atsegin dute eta horri heldu diogu. Aitziber Alonsoren marrazki zoragarriak geni-

tuen, denboraren lerroa irudikatzen dutenak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzari esker, liburua osatu dugu, historian egon diren hamabost zibilizazioei kolorea jartzeko haurrek. Oso pozik gaude lorturiko emaitzarekin. Oso modu errazean kontatzen dira garai bakoitzaren ezaugarriak eta espero dugu honek ere zabalkunde handia izatea. Berez gaztelera hutsean atera behar zen, aurrekontuak hala biltzen baitzuen, baina guk ez genuen ulertzen euskaraz ez kaleratzea, beraz ahalegin berezi bat egin dugu euskaraz ere publikatu dadin.

Denbora erdiz ari zara Oiasso Museoan lanean, baina gainontzeko orduetan geldirik ez zara egongo...

Museorako antzerki pieza bat egokitzen ari naiz. Museoaz harago dokumental bat egiten ari naiz, baita euskaraz egiko antzerkiaren inguruan liburu bat osatzen ere. Horrez gain, antzezlan bat idazten ere ari naiz, baina gehiago ez diuzet kontatuko. 60 urte ditut baina erretrata ez dago nire buruan, kar kar kar. Sortzen dugunok ezin dugu jubilatuta eta zorionekoak gu, ofizio hau dugunok! ●



Eusko Jaurlaritzaren azken soziometroaren arabera, EAJk hauteskundeak irabazten jarraituko luke La Manadakoak lehendakarigai jarriko balituzte ere

Ikertzaileen arabera, misterio bat da nola oraindik jendeak beste alderdiei botoa ematen dien, nork irabaziko duen beti hain argi egonda. ●

Kantabriako muga zeharkatu ezin duten bizkaitarren egoera krisi humanitariotzat har dezatela eskatuko du Jaurlaritzak

Castro Urdialesen daukaten bigarren etxera joan ezin duten bilbotarren egoera dramatikoak dela adierazi du Iñigo Urkulluk eta Nazio Batuen Erakundeari babesa eskatu dio. ●



Iruña-Veleiari buruzko telesail bat estreinatuko du Netflixek, Goenkaleren iraupen-errekorra hautsi nahian

Datorren urtean hasiko dira filmatzen eta dagoeneko kontra agertu dira ostrakak benetakoak direla diotenak, baita faltsuak direla diotenak ere. ●

OASIKO
Kronikak

▶

UMORE KONFINATUA
Entzun podcasta astean behin



Artikulu hauek erositak ekarpen ekonomikoa
egingo diezu **Mbolo Moya Dooleren**
erresistentzia kutxari eta **Argiari**.
Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!



15€*
KAMISETAK



8€*
POLTSAK

14€*
PAPE NIANG
HASIERA BERRI BAT
LIBURUA



24€*
JERTSEAK
4 KOLORETAN

Eskaerak egiteko sartu: **AZOKA.ARGIA.EUS** edo deitu **943 37 15 45** telefonora

*Bidalketa gastuak 4€

INPRENTA
Offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

DISEINU
EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

*Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!*



ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDAK
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK

www.**antza**.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160
LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus